

Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko urtarrilaren 20a • IV. urtea • 95. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



Goienka2a

Praka bakeroen
150 urteak; ibarrean
oihal hori egiten dute

JUANJO ÁLVAREZ

“Bergarako UNEDek orain dela sei urte zuen ikasketa eskaintza bikoiztu egin du gaur egun” /8-9

KIROLA

Mailaz igotzeko bideari
ekin dio Arrasate
Errugbi taldeak /11

ASTEKO GAIA: ABIADURA KONTROLATZEKO ZINTAK: GOGAIKARRIAK, BAINA PREMIAZKOAK /3

“Eraginkorrak dira zintak”, diote udalek eta herritarrek

■ *Udalen esanetan, istripu asko saihesteko balio dute koskek*

■ *Bizilagunek udalei eskatu diete zinta gehiago jar ditzatela*

■ *Auto lantegietan diote autoei ez dietela kalte handirik egiten*

Gero eta sarriago aurkitzen dituzte gidariak abiadura murriztera behartzen duten koska edo zintak. Ez dira inoren gustukoak, baina esperientziak erakutsi du istripuak saihesteko behar-beharrezkoak direla, eta herritar askok zinta gehiago ipin dezatela eskatzen dute udaletan.

Debagoieneko herri guzti-guztietan daude zinta horietako hainbat. Ipintzeko eskumena udal bakoitzak du, eta arriskua dagoen edozein lekutan jar ditzake, baldin eta bide hori udalaren jabegokoa bada. Bi motatakoak izaten dira, nagusiki: goma beltzez egindakoak –gehien ikusten direnak– edo porlanezkoak, zebra-pasaguneetan.



Porlanezko koskak zebra-pasaguneetan eta biribilune inguruetan aurkitzen dituzte gidariak.

AITOR URIZAR

ITSRIPUA

Gizonezko bat hil da Eloregerin auto istripuan

Gizonezko bat hil zen eguen eguerdian auto istripuan, Eloregeriko biribiletik gertu. 12:25ak aldera gertatu zen istripua, SS matrikuladun Skoda Pick Up auto txuri batek eta Mercedes Benz furgoneta batek aurrez aurre jo zutenean. Istripuaren ondorioz, auto ilara luzeak sortu ziren Bergara, Arrasate eta Oñatitik, Eloregerantz. /4

ATXILOKETA

Paulo Elkoro atxilotu zuten Alemanian eguazten gauean

Paulo Elkoro bergararra atxilotu zuten eguazten gauean Alemanian. Espainiako poliziak ETako Araba komandoko kide izatea leporatu dio. Hain justu, Arakako militar etxearen aurka atentua egin zuen Araba komandari informazioa helaraztea leporatu dio poliziak. Paulo Elkoro 1998tik ihes eginda zegoen, Araba komandoa jausi zenetik. /4

ARETXABALETA

Gaztetxea laga beharko dute, Udalak hala aginduta

Gaztetxeko arduradunek gaur, egubakoitza, dute azken eguna gaztetxea husteko, Udalak hala aginduta. Erabaki hori gutun baten jakinarazi zieten gaztetxekoei. Argindarraren fakturak ez dituztela ordaintzen, alde biek gaztetxea itxi eta zabaltzeko adostutako ordutegia ez dutela betetzen, eta suteen eskailera garbitu barik dagoela aipatzen du Udalak gutun horretan. /7

‘Sustatu.com’ Goienaren Interneteko albistegiari eman diote, gaur, Sareko Argia saria 2003

Sustatu.com albistegi digitalari eman diote aurten Sareko Argia saria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta

Code&Syntax Interneteko enpresa dira Sustatu.com albistegiaren buztatzaileak. Sari horrekin, iaz

GOIENKARIAk prentsa alorrean jasotako sariari lekukoa hartu dio Goienaren beste produktu batek. /5





%50
eraino

**ATLETISMOKO ERROPAN,
MENDIKO ERROPAN,
KIROL-MODAN ETA
HAUR-MODAN.**

2.Merkealdiak

Garibai Etorbidea, 2-6 • Arrasate

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Abiadura zintak, beharrezko traba

Hamar istriputatik bederatzi saihesten dituzte koska horiek

LEIRE KORTABARRIA

Oso denbora laburrean, Debagoieneko herrieta-ko errepide guztietan agertuz eta ugarituz joan dira: autoei abiada murriztera behartzeko zintak dira. Ez da beharrezkoa autoz aparteko bidaiarik egitea zinta horietako bat baino gehiago gure bidean aurkitzeko; ziurrenik, herritik irten barik ere pare baten gainetik, behintzat, pasatu behar izango dugu.

LANTEGIAK ERE, ALDE

Auto gidariek ez dituzte gustuko zinta horiek: esaten dute autoari kalte egiten diotela koska horiek. Arrasateko Ibahe lantegikoek diotenez, “esekidura (suspentsioa) ohi baino baxuago duten autoei, bai, kalte egiten die. Esekiduraren errotulek, motelgailuek (amortiguadorek)... arazoak izan ditzakete”. Hala ere, arduradunek gaineratzen dutenez, “esekidura baxu mota hori duten autoen gidariak gaztetxoak izaten dira, eta horiek abiadura handian joaten dira”. Euren iritziz, abiadura altu horrek dakartzkio kalteak autoari, ez zintek eurek.

Eta iritzi bera du Arrasate Konponketak lantegiko arduradunak: “Autoak kalteak izan ditzake, baina bakarrik abiadura handiz badoaz. Gidariek bada-kite abiadura murriztu behar dutela; hortaz, euren errua da. Nire iritziz, zinta gehiago ipini beharko lituzkete, eta seinaleen bidez zintak daudela ohartarazi”.

UDALAK ETA HERRITARRAK, POZIK

Zorionez, Debagoiengan zintak ez dituzte inongo istripuren ondorioz ipini, baizik eta prebentzio moduan. Zintak udal bakoitzak ipintzen ditu, bere jabegoko bideetan; baina herritik kanpo dauden errepideak Foru Aldundiarenak dira, eta Aldundiak ez du zintarik ipintzen.

Bi motatako zintak ikus ditzakegu gure errepideetan. Arrasateko Gipuzkoa etorbidean barrena, adibidez, mota biotako hainbat zinta daude. Udalaren esanetan, bide hori, batez ere San Isidro elizaren pareko zatia, “puntu kritikoa” zen, arrisku handikoa. Eta ibarreko beste herri batzuetan, batik bat, bide zati zuzen eta luzeetan ipini dituzte zintak; baita aldapa zuten bide-



AITOR URIZAR

Gomaz zein porlanez egindako abiadura kontrolatzeko zintek ez diete autoei kalte handiegirik egiten, abiadura handian iritsi ezean.

etan eta asko erabiltzen diren zebra-pasaguneetan ere.

Zinton alde, esan dezakegu Debagoieneko herri guzti-guz-

tietan daudela, eta udalak pozik daudela: “Istripuak hamarretik batera jaitsi dira”, dioskue Bergarako Udaltzaingotik. Bizilagua-

nak ere pozik daude zintekin; izan ere, hainbat udalek zinta gehiago ipintzeko eskaerak jaso dituzte.



ZUZEN LUZEETAN Goma beltzeko zintak, gehien ipintzen direnak

Goma beltzez egindako zintak 3M etxeak egiten ditu, eta merkeenak dira. Material horrek islatzailezko bandak ditu. Bide zati zuzen eta luzeetan edo herri sarreretan daude: Unibertsitate etorbidea (Oñati), Arana (Eskoriatza), Matxiategi, Zubieta (Bergara), Aretxabaletako sarreran...



ZEBRA-PASAGUNEETAN Porlanez altxatutako errepide zatiak dira

Zebra-bideak porlanez altxatzen dituzte, eta gorritz margotu. Biribiluneetan ere ikusten ditugu (adibidez, Arrasateko Oñati kalean). Gomazkoak baino garestiagoak dira, baina baita eraginkorragoak ere mota horretako bideetan. Bestalde, autoendako euren dako ere leunagoak dira.



FORU ALDUNDIARENAK Kasu bakarra, Bergarako Ubera auzokoa

Aldundiak ez du abiadura kontrolatzeko zintarik ipintzen bere jabegoko bideetan (orokorrean, herriko erdigunetik kanpo dauden bideak). Hala ere, erabaki hori hartu aurretik, ipini zituen zinta batzuk: hain zuzen, Ubera auzoan; sarreretan daude asfaltzoko metro eta erdiko zintok.

Diputazioak ez ditu inon ipintzen

Badaude, udalen ustez premia izan arren, zintarik ez duten bideak: adibidez, Arrasateko Uribarri etorbidea, Arrasate-tetik Aretxabaletarako bidea edo Elgetako sarrera. Zati horiek Aldundiarenak dira. Udalek diote: “Aldundiak esan zigun zintak zirkulazio-arendako arriskutsuak direla, batez ere, bi gurpildun ibilgailuendako”. Aldundiak, ordea, zehazten du: “Gure teknikoek kasu bakoitza aztertzen dute eta zein konponbide behar den erabakitzen dute: zintak, semaforoak... ipini”. Elgetan, eztabaida dago: plaza inguruan zintak ipini nahi dituzte herritarrek, baina, hori Diputazioaren zatia denez, ez dute baimenik.

1936ko gerran preso egon zirenendako kalte-ordaina

Lurralde Ordezkaritzaz gain, Debagoiengan ere eska daiteke laguntza

OXEL EROSTARBE

Guztira, 3.606,073 euroko laguntza emango du Jaurlaritzak, 36ko gerran preso egondakoei kalte-ordaina emateko. Laguntza eskatzeko esku-orria Lurralde Ordezkaritzan, Debagoieneko udaletako ongizate zerbitzuetan eta zaharren egoitzetan bete daiteke.

Eusko Legebiltzarrak, 2001eko azaroaren 9an egindako osoko bilkuran, aho batez onartu zuen frankismoaren garaiko preso politikoei kalte-ordainak ematearen gaineko legez besteko proposamena. Hauek eska ditzakete laguntzak: gerraren ondorioz espetxe, diziplina-zentro edo kontzentrazio-esparruren baten sei hilabetez edo sei hilabete baino gehiagoz askatasun-gabetzea jasan zutenek, haien alargunek edo seme-alaba ezinduek.

LAGUNTZAK, KALTEAREN ARABERA

Dekretu horretan jasotako laguntzak finantzatzeko, 3.606.073 euro erabiliko dituzte. Askatasun-gabetzean emandako denboraren arabera izango da, 36ko gerran preso egondakoei jasoko duten laguntza. Preso egondako epea luzeago den heinean, lehentasuna ere handiagoa izango da. Emango duten kalte-ordaina, gehienez, 9.600 eurokoa izango da.

Askatasun-gabetzearen aldia sei hilabetetik hamabi hilabetera bitartean izan bada, 7.200 eurokoa izango da laguntza. Hortik aurrera, sei hilabeteko bakoitze-

“Kontzentrazio-esparruetan sei hilabete edo gehiago egondakoei eska dezakete laguntza”

“Askatasun-jabetzea jasan zutenek gain, haien alargunek eta seme-alaba ezinduek ere eska dezakete”

“Lurralde Ordezkaritzara joan ordez, laguntzak Debagoiengan ere eska daitezke”

ko 600 euro gehituko dituzte, gehienezko 9.600 euroetara arte.

ESKABIDEA EGITEKO DOKUMENTAZIOA

Askatasun-gabetzea jasan dutenek hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dituzte. Aurkeztu beharreko agiriak hauek izan daitezke: kontzentrazio-esparruren baten emandako denbora egiaztatuko duen jatorrizko ziurtagiria edo fotokopia konpultsatua; edo, bestela, espetxeko egonaldia eragin zuten egintzei, 46/1977 legea aplikatzea onartzen duen jatorrizko erabaki judiziala, administrazio-ebazpena edo fotokopia konpultsatua.

DEBAGOIENAN ERE ESKA DAITEKE

Laguntza eskatzeko, bi aukera daude: bata, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Ordezkaritzara joatea; eta, bestea, Debagoiengan bertan eskatzea. Debagoiengan, Bergara, Eskoriatza, Antzuola eta Elgetako ongizate zerbitzuek ematen dute gai horren gaineko informazioa. Eta kaltetuek bertan bete dezakete laguntzak eskatzeko esku-orria.

Arrasaten, adibidez, zaharren egoitzetan bete daiteke laguntza eskatzeko esku-orria. Eta Debagoieneko EAJren ordezkaritzetan ere bete daitezke esku-orriak.

Informazio zabalagoa aurretik aipatu ditugun lekuetan izango dute kaltetuek.



IKER BARANDIARAN

Suhiltzaileek atera zuten hildakoaren gorpua, txikituta geratu zen Skoda autotik.

Gizonezko bat hil da Elorregin, auto istripuan

ENEKO AZKARATE

Gizonezko bat hil zen eguen eguerdian, auto istripuan, Elorregiko biribilunetik gertu. 12:25ak aldera gertatu zen istripua. Skoda Pick Up auto zuri batek eta Mercedes Benz furgoneta batek aurrez aurre jo zuten. Istripuaren ondorioz, auto ilara luzeak sortu ziren Bergararik, Arrasatetik eta Oñatitik Elorregira bidean.

Istripua Elorregiko Alkartasuna elkartearen eta bidegurutzeko biribilunearen arteko zuzenean gertatu zen. Herrizaingo Sailak aditzera eman zuenez, oraindik zehazteke dauden arrazoiengatik, Bergararik biribilunerantz zihoan

auto batek eta biribilunetik Bergarara zihoan furgoneta batek aurrez aurre jo zutenean gertatu zen istripua. Kolpearen ondorioz, Skoda autoan zihoan 40 bat urteko gizonezkoa hil egin zen eta Mercedes Benz furgonetan zihoan 55 urteko gizonezkoa, zauritu. Azken hori Debagoieneko eskualde ospitalera eroan zuen ambulanzia batek, buruan zauriak zituela.

Beste auto bat ere, Skodaren atzetik zihoan Mercedes bat, ukitu zuen furgonetak, baina gidariari ez zitzaion ezer txarrik gertatu. Auto horretan zihoan GAIENKARIARI esandakoaren arabera, Skoda autoak maniobra arraroa egin eta aldameneko erreian sartu zen, furgonetarekin aurrez aurre jo aurretik.

Paulo Elkoro iheslaria atxilotu dute Alemanian

ETAko Araba taldeari laguntzea leporatu diote

E.A.

Paulo Elkoro bergararra, atxilotu zuten eguazten gauean Alemanian. Espainiako poliziak ETAko Araba komandoari laguntza ematea leporatu dio. Hain justu, Arakako militarren etxearen aurka atentatua egin zuen Araba komandoari informazioa helaraztea leporatu dio poliziak. Era

berean, leporatu diote hainbat enpresabururi gutunak bidaltzea, Espainian turismoa egiteak dakarren arriskuaz ohartaraziz.

Paulo Elkoro 1998a ezkerreko ihes eginda zegoen, hain justu, poliziak Araba komandoa desegin zuenetik. Ezker abertzaleko kide eta Bergarako alkate izandako Jose Luis Elkororen seme-etako bat da Paulo Elkoro.



Chinchurreta enpresako 85 langileek greban jarraitzen dute

Oñatiko Chinchurreta enpresako 85 langileek 15 egun daramatzate greban. Urtarrilaren 7a geroztik, enpresaren eta langileen arteko harremanak etenda daude. Langileek soldata duinak eskatzen dituzte, eta ez dute baztertzeko euren eskaerei kasu egin ezean presio neurriak handitzea. Eguaztenean, manifestazioa egin zuten Oñatiko kaleetan, euren eskaerak aditzera emateko. /O.E.



MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25

LABUR

Oñatiko gaztelekutik galipota biltzera

Oñatiko gaztelekukoak Galiziako Corme herrira joango dira, otsailaren 7an, hondartzetako galipota batzera. 50 bat lagunendako tokia dute, eta hara joan nahi duenak ez du derrigorrez oñatiarra edo gaztea izan behar. Antolatzailerak Iñaki Muñoz da, eta haren telefonoa: 696 10 29 82.

Halcon bidaia agentziak Ecuador agentzia erosi du

Globalia taldeak -Halcon bidaia agentzia, Air Europa hegazkin konpainia eta Travelplan maiorista batzen dituen- Ecuador bidaia agentzia erosi du. Eta Bergaran eta Arrasaten Ecuadorrek dituen hiru bulegoak -Arrasaten bi eta Bergaran bestea- Halcon-en eskuetara pasatuko dira. Halcon-ek Arrasaten, Bergaran eta Oñatin bulego bana du.

MUko Praktiker, Europa mailako jardunaldietan

MUko Praktiker erakundeak Europa mailako *Proyctica* jardunaldietan esku hartuko du datorren astean, hilaren 30ean eta 31n. Jardunaldiak Donostian eta Bidarten izango dira. Orain dela pare bat urte, Euskal Herriko mugez kanpoko lehenengo institutua sortu zuten Praktiker-ek eta Iparaldeko Graphos-Estia unibertsitateak. Hala, Eralan erakundeak sortu zuten, ikerketa proiektuak hezteko eta bi unibertsitateen artean ikertzaileak sortzeko.

'Sustatu.com' albistegi digitalari eman diote Sareko Argia saria 2003

Iban Arantzabal, editorea: "Euskaldun askorendako, bisitatu beharreko lekua izatera heldu gara"

ENEKO AZKARATE

Sustatu.com albistegi digitalari eman diote aurten Sareko Argia saria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Code&Syntax Internet enpresa dira albistegi horren bultzatzaileak. Gaur, egubakoitza, eguerdian egin dute sari banaketa, Lasarten. Iaz, GOIENKARIAri eman zioten Argia saria, prentsa alorrean.

Sustatu.com Interneteko albistegi bat da, albistegi berezia, *weblog* bat, hain justu ere: berriak eta mezuak plazaratzeko foro bat da, baina parte hartzeko aukerak eskaintzen ditu. Hau da, erabil-tzailea da, sarritan, berri edo iritzi emaile. Horretan datza albistegi horren berritasuna eta arrakasta. Izan ere, euskarazko lehen *weblog*-a da *Sustatu.com*, eta harpidedun eta bisitari mordoa ditu, euskarazko Interneteko leku bisitatuena izatera helderaino. Abenduan bete zuten urtebete.

Batik bat, hainbat arlotako profesionaleri zuzenduta dago albistegi hori: ekonomiako, hezkuntzako, informatikako, enpresako eta beste arlo batzuetako albisteak irakur daitezke *Sustatu.com*-en. Baina *weblog* bat den neurrian, beste hainbat aukera eskaintzen ditu, Interneteko ohiko albistegiak baino gehiago.

Iban Arantzabal Goienako Telematika zuzendaria da *Sustatu.com*-eko editorea. Hona, saria jaso aurretik GOIENKARIAri esandakoa: "Sari hau oso garrantzitsua da *sustatuzale* guztiondako. Euskal profesionaleri zuzendutako *weblog*-a izanda, parte hartzen duten guztiak saritu dituzte Argiakoek. Izan ere, idazteko modua izan da saritua. Lan handia egin dute Goienak, editorialari dagokionez, eta Code&Syntax-ek,



Iban Arantzabalen esanetan, nabarmentzekoa da horren denbora gutxian 'Sustatu.com'-ek izan duen bisita kopurua.

Albistegian parte hartzen duten guztiak saritu dituztela dio 'Sustatu'-ko editoreak

lan teknikoari dagokionez. Euskaldun askorendako, bisitatu beharreko leku horietako bat izatera heldu gara, eta sari honek lanean jarraitzeko indarra ere ematen digu. Bestalde, oraindik egongo da ezagutzen ez gaituen jendea, eta ea sari honek laguntzen duen sortu dugun komunitatea handitzen".

Albisteak lantzeko eta aurkezteko modu berritzailea nabarmendu dute Argia astekarikoek

ALBISTEGI BERRITZAILEA
Sustatu.com-en albisteak lantzeko modu berritzailea nabarmendu du Argiak saria emateko: "Albisteak lantzeko eta aurkezteko modu berritzailearekin sare-ratu ziren, eta euskal internauten tribuan erreferente saihestezina bilakatu dira denbora laburrean. Informazioa eskain-

tzeaz gainera, eztabaida eta hausnarketa bultzatu nahi izan dituzte, eta lortu dute. Garai bateko tertulien zaporea, prentsako irakurleen gutunen oihartzuna, ideien erakusleho eta, batez ere, eztabaidarako plaza bilakatu da *Sustatu.com*".

PRENTSAN, 'NABARRA' ALDIZKARIA
Beste bost sari banatu ditu Argia astekarikoak. Honako hauei: prentsa idatzian, *Nabarra* aldizkariari; irratian, Euskadi Irratiko *Lauretan Babel* saioari; telebistan, ETBko *Euskal Herria lau haizetara* saioari; publizitatean, Donostiako Publis agentziari, EITBren irudi kanpaina diseinatu zuena; eta merezimenduzko saria, azkenik, Herri Irratiari, iaz 40 urte bete zituela-eta.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zabalik

JABIER
ARANTZETA

Justizia

Gertakari bat baino gehiago direla eta guztiz modan jarri zaigu Justizia azkenaldian. Batetik, munduko epailerik epaileena ei den Garzon jauna. Besterik, Batasunaren legez kanporatze prozesua. Eta, hori gutxi balitz, Epaitegi Konstituzionaleko lehendakari Jimenez de Pargaren azken perla bitxiak.

Pobreok beti jakin izan dugu justizia eta epaitegiko gauzak aberatsen asuntoak zirela. Aberatsok elkarrekin ondo moldatzen ez zirenean jotzen zutela horrelako lekuetara, han asko ei zekien batek gauzak, itxura baten barruan, konpontzeko.

Gauzak horrela, "demokrazia" iritsi zen eta orduan pobreok ere Justizia bageneukala esan ziguten eta geure arazoak konpontzeko bertara jo genezakeela, han itxurazko konponbide bat izango zutelako.

Orain artekoan garbi ikusten da justiziaren oinarrian itxura dagoela. Epaitegi batek, edo epaile batek, egin beharreko gauzarik nagusiena itxura mantentzea da, epaituak garbi ikusi behar du entzun egiten zaiola eta gero gertatutakoak eta entzundakoak kontutan izanda inoren alde ez dagoen epaile horrek auzia erabakitzen duela beti ere guztien ona bilatuz.

Baina azken garaioan itxura mantentze hori ere ez da beharrezkoa Espainian. Inolako lotsa barik adierazten dute hainbat epailek noren edo zeren alde dauden, berdin zaie epaituek zer dioten, eurek euren iritzietan oinarriturik auzia erabakiko dute.

Euskaldunoi geratzen zaigun aukera bakarra, beraz, Espainiatik ahalik eta azkarren alde egitea da, horrelako Justiziak harrapea ez gaitzan.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com



Hiru euskaltzale epaituak!

Etuskal Herriko administrazioetan funtzionario guztiek euskaldunak izan behar dutela errotuz doan eztabaida da. Honen ildotik Eusko Jaurlaritzak euskaltzale jantzia ipini eta administrazioa euskalduntzeko benetako ahalegina egingo zuela sinestarazi zigun, horretarako planak kaleratuz. Iruzurra.

Azaroan, baina, Osakidetzako oposaketak izan ziren eta ez zen inolako hizkuntza eskakizunik egin. Honek osasungintzan euskararen normalkuntza asko atzeratuko duenari. Hau ikusita EHEk salaketa ekimena burutu zuen, eta ondorioz zenbait kide epaitu egingo dituzte urtarrilaren 31n.

Euskaltzale guztion ardura da hau salatu eta euskaldunontzat justizia eskatzea. Aski da, osasungintzan euskaraz!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

Ez da makala Elgetatik Bergarara autoz joatea

Ez da gutxi autopistak ekarri dituen lanak direla-eta bide guztia lokatzez lepo egotea..., horri gehitu zitzaion aurreko astean demaseko auto ilarak izatea ere! Baina, zer egingo diogu ba, etxe guztietan egoten dira tapatu beharreko zuloak eta autopistaren zutabe bat ia erortzea zulo handia bada ere... Edozeini gerta dakiok, eta ez gara horretaz kezak. Denok sartzen dugu hanka noizbait...

Kexatzeko bide ematen duena, ordea, bidearen egoera tamalgarria da. Ezagutzen duzue San Juan errekekako lautadan dagoen bidea? Zenbat partxe ditu? Zenbat zulo? Orain biribil bat egin behar dutela diote zuzenaren erdi-erdian. Ondo, baina bidea konpondu noizko?

GOIENKARIAren irakurle askok ezagutuko dituzue Uberatik hasi eta Elgetara bitartean dauden bi errebuta handiak. Horien egoera da lerro hauek idaztera bultzatu nauena. Urte askotxo dira ez zaiola partxerik ere jarri. Azken elurtean ere gatza bota eta bota, eta ondorioz, lehen txarto zegoena orain txarrago.

Ba omen dago proiekturen bat errebuta horiek "kentzeko" ere. Ba kendu behar zirela orain urtebete ere irakurri genuen eskuetan duzun aldizkarian, baina Olentzero pasatu den arren, ikatza eta ikatza. Ez dago irtenbiderik edo? Nik ez dakit noiz egingo diren errebuta horiek kentzeko lanak, baina ez da bidezkoa, bitartean, egunerogunero hortik pasatu behar denak sufritu beharra. Ordaindu behar diren autobideak egitea ondo edo txarto dagoen jukatza sartu gabe, dauden bideei txukun eustea izan behar da politikarien lana.

Gure agintariek zerbait pentsatzeaz gain egin ere egin beharko lukete zerbait. Bada ordua.

MIKEL GALLASTEGI
Elgeta

Hemeroteka

Errealitatea?

Etorriko zaigun pentsio sistemaren aldatetari buruz idazteko asmoa nuen aste-buruan, baina horretaz idaztera nindoala, ezusteko galanta hartu nuen Espainiako gobernuburuarekin Bilboko udalerako hauteskundeetan zingotzi gaia izango dela iragarri zuenean. Eta gaurkotasunera makurtuta, aldatu egin behar izan nuen asmoa. (...).

Baina errealitate gordina gurutzatu zitzaidan, eta berriro ere, bazter batera utzi behar izan nuen bigarren gai hori, surrealismoak mugarik ez baitu politikaren alorrean. Nafarroako udaletxeetan ikurrina debekatzeko lege bat egin nahi izateari, berez, surrealista deritzot. Dena dela, are surrealistagoa da, lege egitasmo hori "terrorismoaren aurkako itunarekin" bat datorrela esatea.

Hala eta guztiz, berehala galdu nuen aurreko horretaz idazteko gogoia ere, errealitate (edo irrealitate) gordinak eraso baitzidan ondoren. Tribu baten kide ikusi nuen neure burua presidentearen hitzaldi baten zati txiki bat entzun nuenean. (...).

Hobea, hala ere, txiste batetik irtendako pertsonaia baten eskutik geroago iritsi zitzaiguna. Konstituzio Epaitegiko presidentek, bestelako erregelaren artean, honakoa iradoki zuen: Eskubide historikoak aldarrikatzekotan, Granadak egin beharko luke beste guztien aurretik.

Azkenean, kontu hauek jorrazteko gogoein geratu naiz, beste gauza txiki bat gurutzatu baita azken unean. Asteartean, gabarra bat hondoratu zen mila tona fuel-olio zeramatzala. Albistegiek minutu dezente eskaini zizkieten berriari. *Prestige* ontziarekin gertatutakoa ikusi ondoren ulergarria da hori, noski. Ez da ordea normala, edo hobeki esan, guztiz anormala da (subnormala, hipernormala ezin esan baitaiteke) istripu horretan gabarraren kapitaina hilik gertatzea, eta hori irrati-telebistek emandako albistearen azken segundoetarako geratzea.

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS
'Euskaldunon Egunkaria' 2003-01-23

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Zabalik

JABIER
ARANTZETA

Justizia

Gertakari bat baino gehiago direla eta guztiz modan jarri zaigu Justizia azkenaldian. Batetik, munduko epailerik epaileena ei den Garzon jauna. Besterik, Batasunaren legez kanporatze prozesua. Eta, hori gutxi balitz, Epaitegi Konstituzionaleko lehendakari Jimenez de Pargaren azken perla bitxiak.

Pobreok beti jakin izan dugu justizia eta epaitegiko gauzak aberatsen asuntoak zirela. Aberatsok elkarrekin ondo moldatzen ez zirenean jotzen zutela horrelako lekuetara, han asko ei zekien batek gauzak, itxura baten barruan, konpontzeko.

Gauzak horrela, "demokrazia" iritsi zen eta orduan pobreok ere Justizia bageneukala esan ziguten eta geure arazoak konpontzeko bertara jo genezakeela, han itxurazko konponbide bat izango zutelako.

Orain artekoan garbi ikusten da justiziaren oinarrian itxura dagoela. Epaitegi batek, edo epaile batek, egin beharreko gauzarik nagusiena itxura mantentzea da, epaituak garbi ikusi behar du entzun egiten zaiola eta gero gertatutakoak eta entzundakoak kontutan izanda inoren alde ez dagoen epaile horrek auzia erabakitzen duela beti ere guztien ona bilatuz.

Baina azken garaioan itxura mantentze hori ere ez da beharrezkoa Espainian. Inolako lotsa barik adierazten dute hainbat epailek noren edo zeren alde dauden, berdin zaie epaituek zer dioten, eurek euren iritzietan oinarriturik auzia erabakiko dute.

Euskaldunoi geratzen zaigun aukera bakarra, beraz, Espainiatik ahalik eta azkarren alde egitea da, horrelako Justiziak harrapea ez gaitzan.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com



Hiru euskaltzale epaituak!

Etuskal Herriko administrazioetan funtzionario guztiek euskaldunak izan behar dutela errotuz doan eztabaida da. Honen ildotik Eusko Jaurlaritzak euskaltzale jantzia ipini eta administrazioa euskalduntzeko benetako ahalegina egingo zuela sinestarazi zigun, horretarako planak kaleratuz. Iruzurra.

Azaroan, baina, Osakidetzako oposaketak izan ziren eta ez zen inolako hizkuntza eskakizunik egin. Honek osasungintzan euskararen normalkuntza asko atzeratuko duela. Hau ikusita EHEk salaketa ekimena burutu zuen, eta ondorioz zenbait kide epaitu egingo dituzte urtarrilaren 31n.

Euskaltzale guztion ardura da hau salatu eta euskaldunontzat justizia eskatzea. Aski da, osasungintzan euskaraz!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

Ez da makala Elgetatik Bergarara autoz joatea

Ez da gutxi autopistak ekarri dituen lanak direla eta bide guztia lokatze lepo egotea..., horri gehitu zitzaion aurreko astean demaseko auto ilarak izatea ere! Baina, zer egingo diogu ba, etxe guztietan egoten dira tapatu beharreko zuloak eta autopistaren zutabe bat ia erortzea zulo handia bada ere... Edozeini gerta dakioke, eta ez gara horretaz kezkatuko. Denok sartzen dugu hanka noizbait...

Kexatzeko bide ematen duena, ordea, bidearen egoera tamalgarria da. Ezagutzen duzue San Juan erreka lautadan dagoen bidea? Zenbat partxe ditu? Zenbat zulo? Orain biribil bat egin behar dutela diote zuzenaren erdi-erdian. Ondo, baina bidea konpondu noizko?

GOIENKARIAren irakurle askok eza gutuko dituzue Uberatik hasi eta Elgetara bitartean dauden bi errebuta handiak. Horien egoera da lerro hauek idaztera bultzatu nauena. Urte askotxo dira ez zaiola partxerik ere jarri. Azken elurtean ere gatazta bota eta bota, eta ondorioz, lehen txarto zegoena orain txarrago.

Ba omen dago proiekturen bat errebuta horiek "kentzeko" ere. Ba kendu behar zirela orain urtebete ere irakurri genuen eskuetan duzun aldizkarian, baina Olentzero pasatu den arren, ikatza eta ikatza. Ez dago irtenbiderik edo? Nik ez dakit noiz egingo diren errebuta horiek kentzeko lanak, baina ez da bidezkoa, bitartean, egunero-egunero hortik pasatu behar denak sufritu beharra. Ordaindu behar diren autobideak egitea ondo edo txarto dagoen jukatza sartu gabe, dauden bideei txukun eustea izan behar da politikarien lana.

Gure agintariek zerbait pentsatzeaz gain egin ere egin beharko lukete zerbait. Bada ordua.

MIKEL GALLASTEGI
Elorrio

Hemeroteka

Errealitatea?

Etorriko zaigun pentsio sistemaren aldatzekari buruz idazteko asmoa nuen asteburuan, baina horretaz idaztera nindoala, ezusteko galanta hartu nuen Espainiako gobernuburuarekin Bilboko udalerako hauteskundeetan zinegotzi gaia izango dela iragarri zuenean. Eta gaurkotasunera makurtuta, aldatu egin behar izan nuen asmoa. (...)

Baina errealitate gordina gurutzatu zitzaidan, eta berriro ere, bazter batera utzi behar izan nuen bigarren gai hori, surrealismoak mugarik ez baitu politikaren alorrean. Nafarroako udaletxeetan ikurrina debekatzeko lege bat egin nahi izateari, berez, surrealista deritzot. Dena dela, are surrealista goa da, lege egitasmo hori "terrorismoaren aurkako itunarekin" bat datorrela esatea.

Hala eta guztiz, berehala galdu nuen aurreko horretaz idazteko gogoia ere, errealitate (edo irrealitate) gordinak eraso baitzidan ondoren. Tribu baten kide ikusi nuen neure burua presidentearen hitzaldi baten zati txiki bat entzun nuenean. (...)

Hobeia, hala ere, txiste batetik irtearazko pertsonaia baten eskutik geroago iritsi zitzaiguna. Konstituzio Epaitegiko presidentea, bestelako ergelkerien artean, honakoa iradoki zuen: Eskubide historikoak aldarrikatzekotan, Granadak egin beharko luke beste guztien aurretik.

Azkenean, kontu hauek jorratzeko gogoein geratu naiz, beste gauza txiki bat gurutzatu baita azken unean. Asteartean, gabarra bat hondoratu zen mila tona fuel-olio zeramatzala. Albistegiek minutu dezente eskaini zizkieten berriari. *Prestige* ontziarekin gertatutakoa ikusi ondoren ulergarria da hori, noski. Ez da ordea normala, edo hobeki esan, guztiz anormala da (subnormala, hipernormala ezin esan baitaiteke) istripu horretan gabarraren kapitaina hilik gertatzea, eta hori irrati-telebistek emandako albistearen azken segundoetarako geratzea.

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS
'Euskaldunon Egunkaria' 2003-01-23

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

BERGARA

Gaztetxeo lanak hasi dituzte, eta zortzi hilabete iraungo dute

Bi fasetan banatu dituzte gaztetxea egokitzeko lanak: lehenik, tabernaren gunea konponduko dute -kartzelariaren etxea- eta gero, ekitaldi aretoa -kartzela.

Astelehenean, kartzelariaren etxeo lanei ekin zieten, eta zazpi hilabete inguru iraungo dute. Hori horrela, gazteek ekitaldi aretora eraman dute taberna. Bestalde, gaztetxerako sarrera ere aldatu egin behar izan dute. Obrek dirauten bitartean, Juan Irazabal pasealekutik sartu beharko da. Horretarako, aurrefabrikatutako eskailerak jarri dituzte. /M.B.



AITOR URIZAR

ARRASATE

Hezkuntza arloko hamasei aditu hegoamerikar Euskal Herrian egon dira egunotan, eta Arrasate ere bisitatu dute

Txiletik, Mexikotik, Dominikar Errepublikatik, Panamatik, Bolibiatik eta Argentinatik etorri dira hezkuntza arloko ordezkari horiek Arrasatera eta inguruetara. MCCren Otorako egoitzan egon ziren lehenengo, MCCren esperientzia gertutik ezagutzeko. Gero, eguerdian, Arrasateko Udaleko ordezkariak harrera egin zieten herriko udaletxean, eta alkatea ere egon zen. Hegoamerikarrek esan zuten, oso gustura daude gure artean.

Arrasaten ez ezik, Donostian eta Bilbon ere egon dira, baita Euskal Herriko Unibertsitatean ere. Gero, Lleidarako bidea hartuko dute, zapatuan, eta handik, Bartzelonara joango dira. Leku horietan guztietan hezkuntzaren gaineko esperientziak izango dituzte berbagai. /U.M.

ANTZUOLA

Garzónnek azken 25 urteotako informazioa eskatu dio Udalari

Iaz, urriaren 16an kalera-tutako ebazpen baten, "garbiketa etnikoa" egitea egotzi zion Garzon epaileak Batasunari. Esandako hori frogatzeko, HBk, EHk eta Batasunak azken 25 urte hauetan egindako jardueren gaineko informazioa eskatzen hasi da epailea EAEko udal guztiei.

Joan den egunean jaso zuten eskaera hori Mireia Unamuno alkateak, ertzain baten eskutik. Orain, 25 urte hauetako akta guztiak batzen dihardute Udalean, eta, hala, hamar egun dituzte dokumentazio hori guztia prestatzeko. /A.I.

ELGETA

Datorren barikuan aurkeztuko dute 'Elgetako Mapa Toponimikoa'

Alberto Telleria arduratu da *Elgetako Mapa Toponimikoa* egiteaz. Mapa egiteak 11.960 euroko kostua izan du, eta Eusko Jaurlaritzak 9.141,39 euroko dirulaguntza eman du horretarako.

Mapa toponimikoa helburu birekin egin du Udalak: bata, Elgetako leku-izenak jasotzea galdu baino lehen; eta, bestea, leku-izen horien idazkera finkatuta geratzea.

Datorren barikuan (hilak 31) aurkeztuko dute mapa toponimikoa, liburutegian, 20:30ean. /O.E.

ARETXABALETA

Gaur, hilak 24, amaitzen da Udalak gaztetxea husteko emandako epea

Gaztetxeo arduradunek gaur, egubakoitza, dute azken eguna gaztetxea husteko, Udalak hala aginduta. Erabaki hori astelehenean, hilaren 20an, bidaltako gutun baten jakinarazi zieten gaztetxekoei.

Anjel Bergaretxe alkateak sinatutako gutun horretan gaztetxea husteko Udalak dituen arrazoiak ematen dituzte. Bestek beste, argindarraren fakturak ez dituztela ordaintzen, garai baten alde biek gaztetxea itxi eta zabaltzeko adostutako ordutegia ez dutela betetzen, eta suteen eskailera garbitu barik dagoela aipatzen du Udalak gutun horretan. Gainera, jakinarazi diete gaztetxekoei oraindik ere herritarren kezak jasotzen dabilatzala udaletxean. Hori dela eta, Aretxabaleako Udalak gaur, hilak 24, gaztetxea hustuta ikusi gura du.

ARDURADUN BERRIAK

Gaztetxeo arduradunek, berriz, ez dituzte Aretxa-

baletako Udalak egotzitako arrazoiak bere gain hartzen; ez guztiak, behintzat. Gaztetxeo arduradun batek esan digunez, orain dela hilabete bi, arduradun berriak hasi ziren gaztetxean lanean, eta horiek ez dute izan gaztetxea zelan dabilen ikasteko denborarik. Besteak beste, aipatu digute orain arte ez zekitelako argindarraren fakturak nora heltzen ziren. Edozelan ere, hori guztia azaltzeko, Anjel Bergaretxe alkatearekin hitzordua egin gura dute arduradunek. Eta aditzera eman dute ez dutela gaztetxea ixteko inolako asmorik. /A. L.

Zertzelada

Udalak gutunean aipatzen du, besteak beste, gaztetxekoei ez dutela bete bere garaian gaztetxea zabaltzeko adostutako ordutegia.

OÑATI

Gureak lantegiko langileak kexu dira autobus zerbitzuaz

Oñatiko 24 lagun minusbaliatuk Bergarako Gureak lantegian egiten dute lan, eta arazoak dituzte autobus zerbitzuarekin. Lantegitik 800 metrora dute geltokia; minusbaliatuak direla kontuan izanda, autobusa lantegi ondoan gelditu zedin eskatu zioten PESA konpainiari. Hark ezetz erantzun zien. Horre-

la, zerbitzu pribatu bat kontratatzea erabaki zuten. Orain, zerbitzu hori emateko lehentasuna PESAK duela jakinarazi die Diputazioak, baina zerbitzu pribatuaren prezioarekin. Langileak ez daude konforme, eta erakunde publikoek inplikazioa eta laguntza eskatu dute; Oñatiko Udalarena, batik bat. /A.I.



A.I.

Otsaitetik aurrera, PESAK eskainiko die zerbitzu pribatua.

ESKORIATZA

Xanti Iparragirreri omenaldi beroa egin zioten herritarrek

Joan den zapatuan, *Euskal herrian libre bizitzeko eskubidea* lelopean manifestazioa egin zuten herrian. Horren ondoren, plazan 500 lagunek ongietorria egin zioten 22 urtez herritik kanpo egon den Xanti Iparragirreri. Dantzariak eta txistulariak aureskua eskaini zioten, eta Edorta Zubizarreta alkateak herriaren ize-nean txapela eskaini zion Xantiri. Sarasua anaiek eta Manex Agirrek bertotan egin zioten agur, eta Xantik berak eskerrak eman, eta oraindik egoera latzean lagun asko daudela gogorazi zien herritarrei. /A.G.

ARAMAIO

Errepide batzuetan konponketak egiteko beharra dago

Herriko errepide, pista eta bide batzuk konponketa beharrezkoak dira. Hala adierazi digute Udaleko Zerbitzu Teknikoek. Bide horietako apurketa asko abenduko euriteek eragindakoak dira. Egoeraren laburpena eginez, Mazmelatik Pagoluzetarako pistan, Etxaguenerako errepidean, Zabolatik Untzillara doan bidean, Induspe Goikoren eta Zubietaren arteko bidean eta Suñara doan bidean egin beharko dituzte konponketak. Horietako batzuk Udalaren esku daude eta beste batzuk, Arabako Foru Aldundiaren esku. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

Garro jauregian garbiketa lanak egin diren arren, ludoteka itxita

Garro jauregian urtarrilaren 11n suak eragindako kalteak konpontzeko lanak hasi dira dagoeneko. Toki Eder elkartean hondakinak kentzen ibili ziren joan den astean bertan. Eta jauregi-ko hirugarren solairuan dauden ludotekan eta liburutegian, berriz, suak belzutakoak garbitu zituzten. Udaletxean esan digutenez, umeendako lokala lehenbailehen zabaltzeko gura dute, baina argia noiz konponduko zain daude. Hala, argindarra jartzen dutenean zabaltzeko dituzte ludoteka eta liburutegia. /A.G.

Juan Jose Álvarez

BERGARAKO UNEDeko ZUZENDARIA

“Urteak daramatzagu espetxeetan dauden ikasleei zerbitzu administratiboa eskaintzen, eta orain arte ez dugu inolako salaketa formalik jaso”

Bergarako UNEDek eta Euskal Herriko Unibertsitateak presoei aldeko tratua ematen dietela argitaratu zuen joan den urtarrilaren 15ean *El Mundo* egunkariak. Kontrastatu bariko albistean bi erakundeon lana zalantzan jartzetik az gain, delitua egitea leporatzen zien egunkari horrek. Akusazioak oso larritzat jotzen ditu Bergarako UNEDeko zuzendari Juan Jose Álvarezek (Zumaia, 39 urte). Harekin egin dugu berba.

ENEKO AZKARATE

Bergarako UNED albiste izan da egunotan, prentsan agertutako albiste bat dela-eta. Hain justu, bai EHUK baita Bergarako UNEDek ere, presoei tratua berezia ematen dietela argitaratu du egunkari batek. Zer deritzozu horri?

Penagarria da, batez ere, ez dizutelako lagatzen bakean lan egiten. Tamalgarria da unibertsitatea horrelako kontu bategatik albiste izatea. Funts barik, morboz eta intentzio txarrez idatzitako albisteak izan da. Horrelako lehergailu mediatiko baten aurrean, bi jarrera ager ditzakezu: isildu, edo aurpegia eman eta salatu. ETako presoei tratua berezia ematea, hau da, delitua egitea leporatu digute, batere frogarik aurkeztu barik. Albistea kontrastatu ez duen eta gure erantzuna argitaratzeko gauza izan ez den komunikabide bati ez diot inolako balio deontologikorik eman nahi.

Zehatz-mehatz zer leporatzen zien hedabide horrek Bergarako UNEDi eta EHUri?

Batetik, EHUK ETako presoei aldeko tratua ematen diela esaten zen. Nik ez daukat ardurarik EHUKo zuzendaritzan, baina, EHUKo irakasle naizen aldetik, esan dezaket argumentu horiek erabiliz edozein erakunde izan daitekeela susmagarri. Edozein unibertsitatean gerta daiteke hori, beti egon daitekeelako irakasleren bat katedra askatasuna eta bidegabekeriak nahastuko dituen. Edozelan ere, oso zaila da hori kontrolatzea. Beste kontu bat da norbaitek bidegabekeriaren bat egiteagatik erakunde osoaren lana zalantzan jartzea. Edozelan ere, albistea idatzi duenak ez du frogarik aurkeztu eta, bestalde, erantzuteko edo gure iritzia emateko aukerarik ez digu eskaini. Bestalde, Bergarako UNEDi dagokionez, benetan gogorrak izan dira gure aurka jaurtitakoak. Izan ere, EHUKekin 1988a ezker sinatuta daukagun hitzarmena iruzurrezkoa eta ezkutukoa dela esan dute. Hori gezur hutsa da, besteak beste, Madrilgo UNEDeko zerbitzu juridikoen bermea delako, publikoa delako eta 1988tik hona EHUK izan dituen errektore guztiek hitzartutakoa delako.

Bergarako UNEDeko langileen lan jarduna ere zalantzan jartzen zuen albistek.

Bai, hala da. Bergarako UNEDeko langileek komunitate unibertsitarioa beldurrarazi nahi dutela aipatzen zuen albistek. EHUKen eta espetxeen artean zulo beltz antzeko bat dagoela ere aipatzen zuen, eta Bergarako UNEDek presoen azterketak manipulatzeko zituela aditzera ematen zuen. Horrez gain, UNEDeko zigiluak modu desegokian erabiltzea ahalbidetu dugula ere aipatzen zuen; edo EHUn matrikulatuta dauden ETako 355 presoak UNEDeko ikasle moduan matrikulatuta daudela... Bergarako UNEDek 1.628 ikasle ditu gaur egun, eta hor ez daude hedabide horrek aipatzen dituen ETako 355 ikasleak, besteak beste,

ikasle horiek EHUKoak direlako, eta ez UNEDekoak. EHUKekin daukagun hitzarmen horren arabera, guk kudeaketa administratiboari dagokion bitartekari lana baino ez dugu egiten. Besterik ez. Tituluak EHUK ematen ditu.

Hori guztia dela eta, zer erabaki duzue?

Albiste horretan gure jardunaren aurka jaurtitakoei erantzutea erabaki dugu. Bergarako UNEDek urteak daramatza, 1980a ezker, hain justu, espetxeetan dauden ikasleei zerbitzu administratiboa eskaintzen, eta orain arte ez dugu inolako kezarik edo salaketa formalik jaso. Bestalde, Bergarako UNEDeko patronatuak datorren martitzenean egingo du ohiko batzarra, eta batzarrean kontu hori ere izango dugu eztabaidagai. Patronatua osatzen dugun alde guztiek sinatutako adierazpen instituzionala egin nahi dugu. Bergarako Udalak, Gipuzkoako Diputazioak, Kutxak eta Madrilgo UNEDek osatzen dute patronatua, eta guztiak bat datoz adierazpen horrekin. EHUKekin daukagun hitzarmenaren balioa berretsi eta egunkari horretan jaurtitako gezur horiei erantzutea da helburua.

Aznarren ekimena ei da EHUn ikasten diharduten ETako presoei tratua berezia ematen zaien edo ez ikertzea. Zer erakusten du horrek, zure iritziz?

El Mundo-n argitaratutako albistearen hasieran irakur zitekeen Aznar irakasle eta intelektual euskaldun batzuekin elkartu zela Moncloan, eta haiek euren kezka azaldu ziotela Aznarri, ustez, EHUn hainbat irregularitasun egiten zirelako. Eta albistean irakur zitekeen, era berean, Aznarren beraren ekimena zela presoekiko EHUK eta UNEDek darabilten ustezko aldeko tratua gainera ikerketa egitea. Guk ez dugu inolako informazio eskaririk jaso orain arte. Unibertsitate eta politika kontuak ez dira erraz uztartzen. Tamalgarriena da horren moduko albistek susmagarri bihurtzen gaituztela, eta *etiketa* jartzen zaigula.

BITARTEKARI LANAK

“EHUKekin daukagun hitzarmenaren arabera, guk kudeaketa administratiboari dagokion bitartekari lana baino ez dugu egiten. Besterik ez. Tituluak EHUK ematen ditu”

UNIBERTSITATEA, SUSMAGARRI


“Unibertsitate eta politika kontuak ez dira erraz uztartzen. Tamalgarriena da horren moduko albistek susmagarri bihurtzen gaituztela eta *etiketa* jartzen zaigula”


ESKAINITZA HANDITU

“Orain dela sei urte geneukan ikasketa eskaintza bikoiztu egin dugu, ikasketa berriak egiteko aukera eskaintzen dugu. Hala ere, orain ere Zuzenbidea aukeratzen dute gehien”

TEKNOLOGIA BERRIAK

“Gure helburua ez da unibertsitate birtuala egitea, teknologia berriak erabiliz gure eskaintza osatzea baizik. Orain, tutoretza presentzial eta telematikoa eskaintzen ditugu”





ENKO AZKARATE

EHUK egin du adierazpenik horren gainean?

Orain arte, ez. Manu Montero errektorearekin berba egin dut eta, seguruen, bat egingo du UNEDeko patronatuaren adierazpenarekin.

Alda dezagun gaia. Egin dezagun berba UNEDeko eguneroko jardunaz. Une honetan zenbat ikasle ditu Bergarako UNEDek?

Ia 1.700. Gehienak Donostialdekoak dira, %80 inguru, baina Debagoienekoak ere asko dira, gero eta gehiago, Bergara eta Arrasatekoak, batik bat. Portugaleteko zentroa ireki aurretik gehiago ginen, baina azken sei urteotan gorako joera darabilgu. 1.200 inguru genituen orain dela bospasei urte, eta orain, esan dudan moduan, ia 1.700 ditugu.

Eta zein da gorakada horren arrazoa?

Bi arrazoi nabarmenduko nituzke: batetik, hezkuntza eskaintza zabaldu egin dugula, ikasketa eta plan berriak eskaintzen ditugu. Esate baterako, orain dela sei urte geneukan ikasketa eskaintza bikoiztu egin dugu; eta, bestetik, Bergarako zentroaren eskaintzaren gaineko zabalakunde handiagoa egiten dihardugu azkenaldian.

Zenbat ikasketa eskaintzen dituzue?

Denera, 27. Horietatik, Zuzenbidea da eskaera handienekoa; baita Enpresen Kudeaketa eta Zuzendaritza, Psikologia, Psikopedagogia eta Informatika ere. Aurtan, Informatika Ingeniaritza eta Turismo diplomatura ematen hasi gara, baita hainbat ikasketatako plan berriak ere. Datorren urtean, beste lau ikasketa berri eskaini nahi ditugu: Matematikako eta Filosofiako plan berriak, Gizarte Laneako bigarren zikloa, eta Kazetaritza eta Ikus-entzunezkoen Komunikazioa. Aurrerago, gehiago.

Gainera, teknologia berriez baliatu zarete eskaintza handitzeko, ezta?

Bai. Guretako, katarsi txiki bat izan da. Tutoreak birziklatu egin behar izan ditugu. Tutore presentzial eta telematiakoak gara hemengo irakasle guztiak. Gure helburua ez da, hala ere, unibertsitate birtuala egitea, teknologia berriak erabiliz gure eskaintza osatzea baizik.

Zein da Bergarako UNEDeko ikasle tipoa?

Adinari dagokionez, 40 eta 50 urte artekoak dira gehienak, baina gero eta ikasle gazteagoak ditugu. Edozelan ere, jeneralean, lanean diharduen eta beste ikasketa batzuk egin nahi dituen ikaslea da gurea. Batzuek euren lanean aurrera egiteko ondo datorkielako eta beste batzuek, berriz, aisialdiari ordu batzuk lapurtu eta ikasketaren bat ikasi nahi dutelako. Horregatik, eskola ordu gehienak egubakoitz arratsaldeetan eta zapatu goizetan ematen ditugu. Edozelan ere, esan behar dut, ikasle kopurua gorantz badoa ere, gero eta gehiago direla etxean ikasten dutenak eta hona, ikastetxera, hurreratzen ez direnak.

Bergarako UNED zabaldu zela 25 urte bete berri dira. Zelan joan dira ospakizunak?

Oso ondo. Hainbat ekitaldi antolatuta eta zentroaren haultzatzaileak izan zirenak gogoratzeaz gain, batez ere, Bergarako UNED proiektu egonkorra eta etorkizun handikoa dela agerian uzteko ondo etorri zaizkigu ospakizunak. Orain dela bospasei urteko gora beherak gauditutugula esango nuke. Adibide bat jartzearren, Bergarako UNEDeko patronatua osatzen duten lau kideetako batek patronatua uzteko erabakia hartuko balu, erabakiaren berri ematen duenetik aurrera, 10 urtez diruz laguntzen jarraitu beharko luke. Hezkuntza eskaintzari dagokionez, bestalde, gero eta zabalagoa dela eta urrutiko unibertsitateekiko gero eta interes handiagoa dagoela argi dago. Hala ere, guk ez diogu beste unibertsitateei konpetentziarik egiten, osagarriak gara.



MONIKA BELASTEGI

“Bergara ibarreko kulturagunea izan beharko litzateke”

Garai baten entzun zen Irunen ere UNEDeko zentro bat zabaldu nahi zutela. Zelan dago kontu hori?

Hori baztertuta geratu zen orain dela hiru urte patronatuak egin zuen adierazpen instituzionalarekin. Aho batez onartu zen Gipuzkoan beste zentrorik ez zabaltzea. Urrutiko unibertsitatea da gurea; hortaz, ez dauka zentzu handirik, gure ikasle gehienak Donostialdekoak izan arren, handik gertu jarri nahi

izatea ikastetxea, Bergarakoaren ordez edo horren osagarri.

Azpimarratzekoa da ibar honetan bi unibertsitate edukitzea, ezta?

Bai, bai, hala da. Eta nabarmentzekoa da, gainera, Bergarako UNEDen egoitza errege mintegia dela. Getaferi *Unibertsitate Hiria* deitzen diote Karlos III.a Unibertsitateagatik. Ibar honetan ere bi unibertsitate ditugula nabarmendu beharko

litzateke, eta, batez ere, Bergara ibarreko kultura hiriburua izan beharko litzatekeela uste dut, Arrasaten industriak eta kooperatibek duten garrantzia nabarmendu beharko litzatekeen moduan. Horrez gain, tokikoa eta mundukoa, hau da, lokala eta globala, aldi berean, izan daitekeela ere aldarrikatu beharko genuke, horixe erakusten dutelako bai Bergarako UNEDek baita Mondragon Unibertsitateak ere.

Podiuma

Marina Arregi | EUSKADIKO PENTATLOI TXAPELDUNA |

Hamazortzi urte ditu, eta etorkizun handiko atleta dugu Marina Arregi oñatiarra. Junior mailan Euskadiko eta Gipuzkoako pentatloi txapelduna da. Senior mailan ere Gipuzkoako pentatleta onena da eta Euskadiko hirugarrena.

Badakigu pentatloian bost kirol egin behar izaten direla. Baina zeintzuk dira kirol horiek?

60 metroetako hesi-lasterketak, luzera-jauziak, altuera-jauziak, pisu-jaurtiketak eta 800 metroetako lasterketak osatzen dute pentatloia. Ez da kirol erreza; izan ere, proba guztiak egun baten egin behar direnez, ondo berotu beharra izaten da.

Zeinetan moldatzen zara ondoen?

Proba guztiak egiten ditut gustura. Aurten 800 metroetako lasterketa egiten hasi naizenez, hori ipiniko dut besteen aurretik.

Noiz hasi zinen pentatloiko probetan parte hartzen?

Orain dela hiru urte hasi nintzen era horretako probak gertatzen. Aurten ez naiz beste urte batzuetan beste entrenatu. Emaizak ordea, oso onak izan dira. Euskadiko eta Gipuzkoako pentatloi txapelketak Anoetan jokatu ziren. Senior eta junior mailako atletok batera hartu genuen parte proban. Junior mailan Euskadiko



AITOR URIZAR

Etokizun handiko atleta da Marina Arregi oñatiarra.

“Ez nuen espero Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan aurrena geratzea. Pozgarria izan den arren, ezusteko galanta hartu dut”

“Oñatin atletismoko emakume talderik ez zegoelako joan nintzen Atletiko San Sebastianera. Horrek ateak zabaldu dizkit.”

eta Gipuzkoako txapelketa eskuratu nuen. Seniorretan, berriz, Gipuzkoako aurrena eta Euskadiko hirugarrena izan nintzen. Lortutako emaitzak oso

onak izan dira. Ez nuen irabaztea espero, ezusteko galanta hartu dut.

Nondik datorkizu atletismorako zaletasuna?

Gure aitak betidanik izan du gustuko atletismoa. Umetan, Aloña-Mendiko taldean hasi nintzen. Baina emakume talderik ez zegoenez, orain dela lau urte, Atletiko San Sebastian taldera joan nintzen. Horrek proba gehiagotan parte hartzeko ateak zabaldu dizkit.

Atletiko San Sebastian Gipuzkoako talde garrantzitsuenetakoa da. Zer moduz?

Oso gustura nabil. Proba askotan parte hartzeko aukera izateaz gain, taldekideen arteko giroa oso ona da. Entrenatzailearekin ere oso gustura nabil. Jabi Gómez da entrenatzailea, Aloñan atletismoan dabilzan umez arduratzen den legazpiarra.

Atletismoko entrenamenduak gogorak izango dira. Ala?

Gogorak diren arren, gustura nabil atletismoan. Domeketan izan ezik, aste-ko gainerako egunetan entrenatzen gara. Egunean bi ordu inguru entrenatzen gara, normalean, Ibarren, nahiz eta astean bi egunean Zumarragara joaten naizen.

Aurrera begira zein asmo dituzu?

Egia esan, lasai joan gura dut. Helburua orain arte moduan jarraitzea da. Lehenengo helburua da, zapatuen jokatu den Euskadiko Kopako 400 metroetako lasterketan, ahal dudan ondoen egitea.

OXEL EROSTARBE

ATZOKO TXAPELDUNAK

Pili Fernández

Boleibola



Pili Fernández, boleibol partidu baten aurretik.

Bergarako boleibol taldeko jokalaria izan zen.

Gipuzkoako Seleksioan bost urtean ibili zen.

Bi urtean Udazkeneko Jokoetan izan zen.

Eskolan ziharduela, soinketako eskoletan hasi zen Pili Fernández kirola egiten. Boleibola gustuko kirola zuenez, eskolan sortu zen taldean eman zuen izena: “Bergaran Compañía de Maria eskolako taldea sortu zen. Marisa Arregi oñatiarra zen gure irakaslea, eta hura zen taldeko entrenatzailea. Goizetan, ordua baino apur bat lehenago joaten ginen eskolara, eta han entrenatzen ginen. Frontoi zaharrean ere egiten genituen entrenamenduak. Alde baten dantza taldekoak izaten ziren eta bestean, boleibolekoak. Erakustaldiak ere egiten genituen; adibidez, Eibarren jaiak izaten zirenean, hara joaten ginen, hango taldearen aurka jokatzera. Gaintontzean, Club Medinako antolatutako txapelketan hartzen genuen parte. Bertan brontzezko domina irabazitakoak gara”.

Gipuzkoako Seleksiotik bi bergararri deitu zieten: “Pili Arin eta biok joan ginen Gipuzkoako Seleksiora. Aste bukaera guztietan Donostia-ra joaten ginen, Anoetan entrenatzera. Seleksio-ko kideok Hotel Correion eta Pension Alemanan egiten genuen lo. Astero-astero hara joatea gogorra egiten zitzaidan, baina oso oroitzapen onak ditut. Taldean giro paregabea genuen. Eta boleibolean jokatzeko lagunak egiteko aukera eman zigun”. Iparraldeko zona osoko taldeek elkarren aurka jokatzeko zuten: “Irteera asko egiten genituen. Seleksioarekin Gijonera, Bartzelonara, Lleidara eta Zaragozara joaten ginen. Talde haien aurka Kantauri Itsasoko Txapelketa jokatzeko genuen. Bi urtean Sevillan ere izan ginen, Udazkeneko Jokoetan parte hartzen. Gipuzkoako Seleksioan lauzpabost urtean izan nintzen, 60ko hamarkadan. /O.E.

“Gipuzkoako Seleksioarekin Kantauri Itsasoko Txapelketa jokatzeko genuen Gijon, Bartzelona, Lleida eta Zaragozako taldeen aurka”



Pili Fernández • Bergara • 1949

GOIENKARIA SARIA

Aste bukaerako emaitzak: Aretxabaleta-Real Union 1-0 / Ordizia-Aloña Mendi: 0-0 / Pasajes-Bergara: 3-0 / Orioko-Mondra: 2-1

ASTEKO JOKALARI ONENAK

1. Alberto Matalobos (Aretxabaleta) 3 puntu
2. Julen Kortabarria (Aloña) 2 puntu
3. Eric García (Aretxabaleta) 1 puntu



Alberto Matalobos
Aretxabaleta



Julen Kortabarria
Aloña



Eric García
Aretxabaleta

Alberto Matalobos
Bere abiadurekin, erasorako joko bikaina erakutsi zuen.

Julen Kortabarria
Julenek ondo babestu zuen Aloñaren atea Ordizian.

Eric García
Ericen golari esker, UDAk hiru puntu poltsikora.

SAILKAPEN OROKORRA

1. Gorka San Vicente (Bergara) 9 puntu
2. Jon Altzola (Bergara) 6 puntu
3. Jon Muruamendiaraz (Mondra) 6 puntu
4. Josu Zubikarai (Aloña) 5 puntu
5. Iban Unanue (Aloña) 5 puntu



Gorka San Vicente
Bergara



Jon Altzola
Bergara



Jon Muruamendiaraz
Mondra



Josu Zubikarai
Bergara



Iban Unanue
Aloña

Goienkaria

Arrasate Errugbi taldea, gorako bidean

Lehenengo ligaxka gaindituta, mailaz igotzea dute helburu Patxi Gorosabelen mutilek

OXEL EROSTARBE

Mailaz igotzeko ligaxka jokatzeari ekin dio Arrasate Errugbi Taldeak. Patxi Gorosabelen mutilak maila bikaina ematen dabilta aurtengo denboraldian. Euren multzoko lehenengo postuan amaitu ostean, mailaz igotzeko ligaxkan ere onenen artean egon gura dute.

Aurreko urteetan ez bezala, aurtun, hiru multzotan banatuta zegoen Euskal Liga. Hala, jokatuak hamar partiduetatik zortzi irabazi ostean, multzoko lehen postuan amaitu dute arrasatearrek. Eta horrek mailaz igotzeko ligaxka jokatzeko aukera emango dio Arrasate Errugbi Taldeari.

Otsaileko lehen aste bukaeran hasiko da, eta Patxi Gorosabelen mutilek mailaz igotzeko aukerak dituzte, baina aurrean izango dituzten taldeak, ordea, ez dira nolana hikoak: Gaztedi, Elorrio, Getxo, Kakarraldo, Eibar eta Kantabriako talde bat. Hortaz, mailaz igotzeko taldea badaukate arrasatearrek, eta horretan ahalginduko dira.



Kakarraldo taldeari irabazi ondoren, mailaz igotzeko ligaxkako lehen liderra da Arrasate Errugbi Taldea.

LIGAXKA HIRU PUNTUREKIN HASIKO DUTE
Azken jardunaldian Kakarraldoren aurka jokatu zuen Arrasate Errugbi Taldeak. Talde biak igo-

era ligaxkarako sailkatuta zedenez, ligaxka horretako lehen puntuak zeuden jokoan partiduan. Eta, kostata izan bazen ere,

arrasatearrek 6-3 irabazi zuten norgehiagoka. Horrela, hiru punturekin mailaz igotzeko ligaxkako liderrak dira arrasatearrek.

Kirolabur

ATLETISMOA/ARRASATE

Jonathan Pérez arrasatearrek jurrezko domina irabazi berri du Gipuzkoako Txapelketan, pertika-jauzian. Atletiko San Sebastian taldean dabilen arrasatearren jauzi onena 4,75 metrokoa izan zen. Bihar, zapatua, Anoetan jokatu den Kluben Arteko Kopa Txapelketan hartuko du parte Jonathan Pérezek.

'SNOW'-A/BERGARA

Aitor Delariberette (22 urte, Bergara) 46. geratu zen aurreko aste bukaeran Muraun (Austria) jokatuako Munduko Snowboard Txapelketan, *boarder cross* izeneko espezialitatean. Espainiako Selekzioa ordezkatzu Jordi Font kataluniarra eta Aitor izan dira Munduko Txapelketan. Aitorrek Munduko Kopako probetan ere parte hartuko du.

XAKEA/DERBIA

Joan den zapatuan, Aretxabaleto Airlutz Xake Taldearen eta Arrasateko San Andres Xake Taldearen arteko derbia jokatu zen. Eta aretxabaletarrek erraz irabazi zuten: 3,5,0,5. Garaipen horrekin, Airlutz Xake Taldeak Euskal B Ligako aurreneko postuan jarraitzen du. Hurrengo partidak Santurtziaren kontra jokatu ditu Airlutz Xake Taldeak.



IKER

SUKALDE
ETA BAINU
ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43


BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42

ARRASATE

FAGOR





EGIN TXOTX! sagardotegietan



Arratzain Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 58 09 74

- Urtarriletik apirila arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: **120 lagunendako lekua, eserita edo zutik**




Aulia Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaera arte zabalik.
- Bertako janaria.
- **110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



Elutxeta Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- **200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



Isastegi Aldaba Txiki auzoa / TOLOSA
943 65 29 64

- Apiril bukaera arte zabalik
- Domeketan itxita
- Sagardotegiko menua
- Arkumea (aurrez deituta)
- Urte osoan sagardoa botilan salgai



Iturrieta Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- **100 lagunendako lekua, eserita edo zutik**



Ixaun Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Untxia eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- **55 lagunendako lekua**



Larre-Gain Larre-gain baserria / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Kazuelak (bakailaoa saltsan eta tomatearekin),(aurrez deituta)
- Astegunetan, gauetan zabalik
- Astebukaeran egun osoa zabalik
- Astelehen eta domeka gauetan itxita



Rezola Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdian zabalik.
- Bertako janaria.
- Arkumea burduntzian eta arraina parrillan enkarguz.
- **100 lagunendako lekua, eserita.**



Uxarte Montorra, 6
ZORNOTZA / 94 630 88 15

- Bizkaiko sagardoa
- Asteburuetan urte osoan zabalik
- Astegunetan enkarguz
- 80 lagunendako lekua
- Sagardotegiko menua

Goienka 2a

Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 24a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren
24tik 31ra



150 URTE

PRAKA BAKEROEN URTEBETETZEA

BERGARA DA EUROPAKO 'DENIM' OIHAL EKOIZLE HANDIENA

Asmakizun handi guztiak bezala, bakeroak ere kasualitatez sortu ziren. Levi Strauss jostunak hogei urte zeramatzan meatzariendako eta urre-bilatzailleendako lanerako arropa egiten, eta 1873an, poltsikoak apur ez zitezen, errematxe bereziak ipintzea aholkatu zion beste jostun batek. Gainera, oihal marroia utzi eta *denim* oihal urdina erabiltzen hasi zen. *Jeans* urdinak jaio ziren.

Orduetik hona, bakeroak historia modernoaren zati izan dira. Urre-bilatzailleen ondoren, II. Mundu Gerrako amerikar gudariak eraman zituzten... Eta gero, haien emazteek. Hasie-

ran, AEBetako bizimoduaren ikur ziren, baina, Europa eta Asiarako hedatzearekin batera, arropa unibertsal bihurtu ziren, adin, gorpuzkera eta pentsaera guztietako jendearendako aproposak.

50eko hamarkadan, gazte errebeldeen ikur bihurtu ziren bakeroak, James Dean-ek eta Liz Taylorrek zinemaren lehenengo aldiz jantzi zituztenetik; AEBetako hainbat ikastetxek ikasleei debekatu egin zieten bakeroak eramatea. 60an eta 70ean, hippy mugimenduak *uniforme* bezala hartu zituen, eta bakeroak itxuraldatu egin ziren, kolore eta diseinu psikodeli-

koen bidez. 70eko hamarkada bukaeran, ordea, garai baten inkonformismoaren sinbolo bezala erabili izan zituen belaunaldiaren seme-alabek arropa hori *burjes* eta zaharkituztat jo zuten, eta hor hasi zen bakeroen krisialdia. Horrek behartu ditu bakero egile garrantzitsuenak arropa hori gaur eguneko gustuetara, moda eta pentsaera joera berrietara moldatzera. Hala eta guztiz ere, bakeroak bizi irautea lortu du, *glamour*-aren eskutik: Armani, Gucci, Adolfo Dominguez, Chanel, Dior, Versace eta horrelako markek moda desfileetara ateratu dituzte bakeroak, eta Hollywoodeko aktore batek baino

gehiagok aukeratu izan ditu bakeroak Oscarren jaialdira joateko.

Historia hori mendebaleko gizarteari lotuta badago, are eta lotura estuagoa du Debagoienarekin; izan ere, Bergaran sortutako Tavex oihalgintza enpresak bakeroak egiteko erabiltzen den oihala du espezializazio moduan, eta Europako ekoizle handiena eta munduko handienetakoa da. 70eko hamarkadan, Levi's etxeak ekoizle ofizial moduan aukeratu zuen. Tavexek ere jakin izan du bakeroen krisialdiari aurre egiten, eta ibarreko enpresa indartsuenetakoa da gaur egun. /LEIRE KORTABARRIA

MODA/ BERGARAN EGITEN DUTE PRAKA BAKEROENDAKO OIHALA

Praka bakeroak, ibarrean eginak

TAVEX ENPRESA DEBAGOIENDARRA DA BAKEROAK EGITEKO ERABILTZEN DEN OIHALAREN EKOIZLE HANDIENETAKOA MUNDU OSOAN

Munduko arropa unibertsalena dira praka bakeroak: lanerako, kalean ibiltzeko, dotore joateko, eta abarrerako erabiltzen ditugu bakeroak. Edozelan ere, askok ez dakite Bergarako Tavex lantegia dela bakeroendako oihal urdin ekoizle handiena Europa osoan.

Urtarrilean, 150 urte bete dira Levi Strauss jostun alemaniarren lehen negozioa zabaldu zuenetik, AEBetan, eta Kalifornian ehunka zebiltzan urre-bilatzaileendako lan-arropa aproposa asmatu zuenetik. 1853an egin ziren lehen bakeroak; orduan, marroiak ziren, eta inongo sofistikazio barikoak, jakina. Handik hogeitazera, gerora *denim* izenez (*serge de Nimes* / *Nimesko oihala* esalditik eratorritako hitza) ezagutuko zen oihal urdina erabiltzen hasi zen Strauss. Orduan jaio ziren bakero urdinak, baita Levi's marka ere, bakeroen aita.

LEVI'S, DEBAGOIENEAN

Levi's etxea haziz joan zen, bakeroak urre-bilatzaileek eta meztariak ez ezik, amerikar guztiak erabiltzen joan ziren neurrian. Eta hazkuntza horrek Debagoiena ere ukitu zuen.

Bergaran 1886an sortutako algodonera zegoen martxan; 1901a ezkerreko Algodonera de San Antonio eta gaur egun, Tavex taldea dena. *Denim* oihala egiten hasia iraultza handia izan zen Algodonarendako: "1970en, Tavex taldeak *denim* oihala egiten hasia erabaki zuen, eta teknologia berriena ekartzeko behar ziren



Begarako Tavex lantegiaren instalazioak, 1901ean. Orduan, langileendako arropak egiten zituzten.

inbertsioak egiten hasi ziren", idatzi zuen Jose E. Perallón adituak *El mundo azul de Tavex* liburuan. Handik gutxira, Levi's etxek Tavex taldea aukeratu zuen Europako hornitzaile ofizial.

BERGARARRAK, EUROPAKO LIDER

Orditik hona, Debagoienean egin da munduko bakero marka ezagunenendako oihalaren kopuru handi bat: Levi's, Lee, Wrangler...

Gaur egun, Bergaran, Valentzian eta Marokon dituen lantegiekin, Tavex da Europako *denim* egile handiena: urtero, 180 milioi euroko salmentak dituzte.

Kontsumitzaileen gustua, baina, aldatu egin da, eta enpresa debagoiendarra horretara moldatu behar izan da: "Gazteek ez dute euren gurasoek eramaten dituzten bakero berberak nahi. Hori dela eta, orain, oihal askoz

meheago eta arinagoa egiten dugu, batzuetan, koloreduna, eta Levi's 501 betiko bakeroen aldean, oso desberdina", dio Manu Díaz Tavex taldeko ordezkariak. Bestalde, modaren esparruko izen handi askok ere -Gucci, Armani eta Adolfo Dominguez, besteak beste- bere egin dituzte bakeroak, ibarrekoen mesederako.

LEIRE KORTABARRIA

SERGIO HERNANDO / UDALAITZ ARROPA DENDAKOA

"Ezkontza baterako ere jantz ditzakezu bakeroak"

Arrasateko Udalaitz arropa dendako jabea eta amodan aditua dugu Sergio Hernando. Hori dela eta, ondo ezagutzen ditu ibarreko kontsumitzaileen gustuak bakeroei dagokienez.

Praka bakeroak 150 urte bete dituzte. Lehen bezainbat saltzen dira gaur egun ere?

Egia esan, azken urteotan, gutxiago saldu izan dira bakeroak. Arrazoiak da orain moda aukera askoz zabalagoa dela. Lehen, Levi's etxea zen jauna eta jabea, eta marka horretako bakeroak saltzen ziren gehien. Orain, ordea, material mota askoz gehiago dago,

eta merkatua dibertsifikatu egin da. Baina bai, hala ere, urtero, pare asko saltzen ditugu.

Zein da bakero erabiltzailearen profila?

Nahiko zabala da. Adin guztietako jendeak erabiltzen ditu. Aldatzen dena da bakero mota, kortea... Gazteek fantasiazko bakeroak, tiro baxudunak, kanpai estilokoak... dituzte gustuko. Nagusiagoek, berriz, kolore ilunak eta tiro altudun bakeroak dituzte gurago.

Bakeroak bere burua berrasmatu du...

Bai. Orain, ia edozein materialekin nahas daiteke: larruarekin, harribitxiak ere ipin

dakizkioke, brodatuak, antea... Esperimentazio handia dago.

Zergatik jarraitzen dute praka bakeroek modako arropa izaten?

Oso-oso ondo gelditzen direlako soinean. Batez ere, ipurdi polita egiten dute, hori da efektu nabarmena. Horrez gain, garbitzeko arropa erraza da, nahiko merkea da, eta aukera zabala dago. Egia esatearren, gaur egun, bakeroak edozein estilo eta mota-tako arropekin konbina ditzakezu: amerikana jaka batekin, *top* batekin, kamisetarekin... Eta bisoizko beroki batekin ere primeran geratzen dira. Ezkontza baterako ere jantz ditzakezu.



Sergio Hernando.

Bakeroak, historian barrena

1853 Levi Strauss etorkin alemaniarrek mertzeria txiki bat zabaldu zuen San Frantziskon (AEB), eta prakak egiten hasi zen.

1872 Jacob Davis Nevada-ko jostunak Levi Straussei gutun bat idatzi zion, eta gizonendako bakeroen poltsikoetan errematxeak ipintzeko aholkatu zion. Ordura arte, Kaliforniako urre-bilatzaileek bakeroak sarri erabiltzen zituzten, baina poltsikoak erraz apurtzen zirela kezu ziren.

1873 Straussek eta Davis-ek errematxeen patentea jaso zuten eta *denim* telazko *gerriko soingainekoak* egiten hasi ziren. Urte hartan lortu zuten *blue jeans* izenaren patentea.

1911 Henry Lee estatubatuarra lanerako petoak egiten hasi zen, hark ere, *denim* oihala erabilita. Lee markaren sortzailea izan zen.

1935 Lady Levi's izeneko modeloa aurkeztu zuen enpresak, emakumeendako lehenengo bakero mota.

1940 II. Mundu Gerran gudari amerikarrek bakeroak sarri eramaten zituzten, eta bakeroak AEBetatik kanpo ere saltzen hasi ziren.

1966 Levi's-ek telebistarako lehenengo iragarkia egin zuen. Urte haietan hasi zen European gero eta gehiago hedatzen.

1975 Levi's etxea Estatuan ezarri zen, eta Bergarako Tavex enpresa aukeratu zuen *denim* oihalaren hornitzaile eskusibo.

1990 Gazteek beste arropa batzuk hobesten hasi ziren. Bakeroen krisialdia hasi zen.

2000 Bakero egileek, Levi's buru dutela, praka horiek *berrasmatu* zituzten, krisialditik irteteko.

KRONIKA/ AZKEN BI HAMARKADOTAN BERGARAN IZAN DIREN ROCK TALDEEN EMALDIA IZAN ZEN ASTEBURUAN

NIREAUKERA

Lehengo eta oraingo rocka

800 LAGUN IZAN ZIREN BERGARAKO GAZTETXEAN HERRIKO 21 TALDEK ESKAINITAKO BI KONTZERTUTAN

Bergarako azken bi hamarkadotako rock eszena osatu duten talde guztiak jaun eta jabe izan ziren joan den asteburuan. Lehengo aldiz, urte hauetako taldeak kontzertu sorta bakarrean entzun eta gozatu ahal izan zituzten debagoiendarrok. Bada, hona hemen asteburuko kronika.

Bergarako gaztetxeko ardura-dunek herriko rock taldeak omentzeko ekimen baten birlitza izan ziren joan den asteburuko bi emanaldiak. *Astindu* fantzinearen azken zenbakia hamarkada bi hauetako 35 talde bergararren gainekoa zen, eta disko konpaktu bikoitzarekin. Behar bezalako omenaldia izan zedin, 35 talde horietatik, 21 elkar-teea lortu eta bi kontzertu antolatu zituzten: Cool Panic, Supercools, Fly shit, Frenopatics, Frangel Rock, Hiru Puntuak, Zartateko, Destruccion, N.C.M., Goiko Rock, Aitzol Mujika, Uko, Black Sheeps, Dixie 900, Dog bite, Elebators, X-at, Ednis, Ostiada Oil!, Factoria 77 eta Muskitxu.



LANDER JUARISTI

Zapatuan, 500 lagun inguru elkartu ziren Bergarako gaztetxean, eta hurrengo goizera arte, giro ederra izan zen han.

EMANALDI ZIRRARAGARRIAK

Markak hautsi dituzte kontzertu horiek: egubakoitzean, 350 lagun izan ziren eta zapatuan, 500. Bi egunetan, hurrengo goizera arte izan zen jai giroa gaztetxean: "Gaztetxean inoiz izan dugun ekitaldi jendetsuena izan da, eta etorri zirenei eskerrak eman nahi dizkiegu", diote gaztetxeko arduradunek. Bergararez gainera, Arrasateko, Eskoriatzako, Elgetako... jendea ere erruz ingu-

ratu zen Bergarara. Egia esatearren, Bergarako gaztetxea ez da inoiz hain beteta egon.


Nostalgiak bere momentua ere izan zuen, kontuan hartuta 21 taldeotatik batzuk bananduta daudela dagoeneko: hori da, esaterako, Frenopatics, Factoria 77 edo Zartateko taldeen kasua. Hiruzpalau entsegu besterik ezin izan zuten egin; hala ere, gogo handia zuten berriro agertokietara igotzeko, behin bakarrik ez bazen ere, eta gogo handiz jardun zuten, beste talde guztien moduan. Biak hala biak, kontzertu bikainak izan ziren: entzuleengan zirrara bizia pizten duten horietakoak.

DISKOA, ORAINDIK ESKURAGAI

Kontzertura joan ez zirenek, ordea, badute oraindik Bergarako talde horien musika entzuteko aukera, oraindik salgai dago-

eta Gazte Asanbladak ateratako diskoa, omendutako taldeen abesti banarekin. Arduradunek mila ale atera zituzten; horietatik 600 saldu dira, honezkerok. Gainera, inguruko herrietako taberna eta gaztetxeetatik ere eskaerak jaso dituzte. Oraingoan, Bergarako tabernetan eta Jam aretoan dago salgai hiru eurotara.

LEIRE KORTABARRIA




'DOCE HOMBRES SIN PIEDAD' Sidney Lumet

Inoiz ikusi dudan film onena, nire iritziz, *Doce hombres sin piedad* da, Sidney Lumet zuzendari estatubatuarrek 1957an egindakoa. Epaiaketen gaineko filmak oso-oso gustuko ditut, eta hau estilo horretakoa da. Ikusi nuenean, inpresio handia egin zidan, eta oraindik ere nire film gogokoena da. Film honetan hamahiru epaimahai-kidek gazte bat hilketaren errudun edo errugabe den erabaki behar dute. Hala, hamabi epaimahai-kidek errudun aitortu gura dute, epaiaketa lehenbailehen buka dadin, eta bakar bat errugabe dela sinistuta dago. Orduan, beste hamabiei gogoeta eragiten ahaleginduko da. /L.K.



Felix Ayala


Margolaria. Otsailaren 7an, Mondragoeko Harresi aretoan erakusketa zabalduko du.



BELMEK
DOITASUNEZKO
MEKANIZATUAK

Telleria 19, B-5
BERGARA

Tel.: 943 76 94 60
Faxa: 943 76 92 81
belmek@belmek.com



BELMEK enpresa
esportatzaileak
UNE-EN-ISO
9001/00
ziurtagiria
lortu du.
CNC tornuetako
piezen
mekanizazioan
espezializatuta
dago enpresa.



Urtarrilak 24-31

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

BERGARA

► **Kasketa kabareta antzerkia** izango da etzi, domeka, gaztetxean, 19:30ean.

ELORRIO

► **Kattalin txiki umeendako antzerkia** eskainiko dute Daxak eta Txotxongilo taldeak etzi, domeka, Arriola aretoan, 17:00etan.
► **El amigo de John Wayne antzezlan** antzetzuko du Ados Teatroa taldeak datorren egubakoitzean, urtarrilaren 31n, Arriola aretoan, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Bella maquia bella antzezlan** izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Kokein taldeak azken diskoa aurkeztuko du** datorren egubakoitzean, urtarrilaren 31n, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

► **Neu eta Desoreka taldeen emanaldia** izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.
► **Arima Beltza taldearen kontzertua** izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.
► **Umbra et Imago eta Bad f-Line taldeen emanaldia** izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:30ean. Txartelak 20 euro kostako dira.
► **Udal Musika Bandaren kontzertua** izango da etzi, domeka, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.
► **Misfits eta Don Cikuta taldeen musika emanaldia** izango da etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan. Txartelak 18 eurotan salduko dituzte aldez aurretik, eta 21ean, lehiatilan.
► **The Inmortal Lee county killers, Nuevo Catecismo Catolico, Cool Panic, Pi L.T. eta X-at taldeen kontzertua** izango da datorren egubakoitzean, urtarrilaren 31n, Jam aretoan, 21:30ean, ikasleen egunaren ekitaldien barne. Txartelak hiru eurotan izango dira salgai.

ELGETA

► **Johnny Jerriwelt & the Fucking Bastards, Jodete eta Never Surrender taldeen kontzertua** izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

ELORRIO

► **Txapel bete bertso ekimenaren barne**, beste saio bat izango da bihar, zapatua, Parra tabernan, 22:00etan. Peru Magdalena, Gorka Lazkano,

Garikoitz Sarrugarte eta Igor Meñika izango dira saioan.

ESKORIATZA

► **Xabier Montoiak diskoa aurkeztuko du** bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI

► **Sharon Stoner (Oñati), The Charlie's Virgins (Oñati) eta Neu Bat (Gasteiz) taldeen musika emanaldia** izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Txartelak hiru eurotan izango dira salgai.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Aratusteetako kartela** aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Arrasaten bizi edo erroldatutakoek hartu ahal izango dute parte. Neurria 50x70 cm izango da. Eta kartelean derrigorrez ipini beharko testua, hauxe: *2003 Haratuzteak Arrasate*. Kultura Sailera bidali beharko dira lanok, otsailaren 14a baino lehen.
► **Gazteen Kontseiluaren logotipoa** aukeratzeko lehiaketa antolatu

dute. Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duten 5 eta 30 urte artekoek parte hartu ahal izango dute. Bidali lanak honako helbidera: Udaleko Gazteendako Informazio Zerbitzua / Biteri etorbidea 3 / 20500 / Arrasate. Argibideetarako, deitu 943 77 00 65 telefono zenbakira.

EUSKAL HERRIA

► **Argazki Lehiaketa** deitu du Elorrioko Lilika emakume taldeak. Gaia honakoa izango da: *Emakumeok hemen gaude, eraikitzen eta dibertitzen, eredu berriak sortzen*. Edozeinek har dezake parte, eta lau argazkiko bilduma bakarria bidali ahal izango da. 200 eta 300 euroko sari bi banatuko dituzte. Bidali lanok honako helbidera, otsailaren 21a baino lehen: Elorrioko Udaletxea (Gizarte-ekintza) / Gernikako Arbola plaza / 48230 / Elorrio.

JAIK

ARRASATE

► **San Balerio jaiak** ospatuko dituzte Meatzterreka auzoan, gaurtik etzira bitartean. Jai egitarauaren barne, bihar, zapatua, urtero moduan, Mus Txapelke-

ta izango da, Meatzterreka elkartean, 17:00etan. Izena emateko, ordu erdi lehenago egon beharko duzue han. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sari nagusia 180 euro izango da.

BERGARA

► **San Paulo jaiak** ospatuko dituzte Ubera auzoan, domekan eta astelehenean. Ekintzetako bat urteroko mus txapelketa izango da. Bihar jokatu da, Uberako Jaolatzela elkartean, 16:00etan. Bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu, eta sari nagusia garaikurra, arkumea eta izenematearen diruaren erdia izango da.

DONOSTIA

► **Bertso Eguna 2003** ospatuko dute bihar, zapatua, Donostiako Udalaren eta Bertsozale Elkartearen eskutik. Bi ekitaldi izango dira: batetik, goi mailako bertsoari emanaldia (Egaña, Lizaso, Silveira, Elortza, Lujanbio, Sorozabal, Irazu, Amuriza, Paya, Peñagarikano eta Sebastian Lizaso), Kurasaalen, 18:00etan; gero, afora eta jaialdia, Zubietako sagardotegi baten. Sarrerak honakoetan eskura ditzakezue: 943 21 77 98 telefonora deituta, www.bertsozale.com helbidean edo Donostiako Bilintx megadendan.



► KONTZERTUAK

THE KAGAS ETA KAÑERIA 13 IBARREKO TALDEAK, KONTZERTUAN

The Kagas taldeak, *rockaren heroi berriak*—eurek erabiltzen duten izenari jarraiki— emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Bergarako Jam aretoan. Debagoieneko talde hori berria da, baina taldeko kide guztiek urte luzeak daramatzate euskal punk-rock eszenan, eta hori guztia ondo sumatuko dute jarraitzaileek. La Polla taldearen ahotsa, letrak, soinua eta jarrera ditu The Kagas taldeak, baina RIP talde arrasatearraren musika du. Konbinazio ezin hobea punk soinu onena sortzeko. Euren lehen diskoa urte bukaeran kaleratu zuten, eta disko horretako doinuak entzungo ditugu. Kontzertuko lehen taldea Arrasateko Kañeria 13 izango da; horiek ere laster izango dute kalean euren estreinaldi diskoa, *Miles de historias*.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** gaur, egubakoitza. **Ordua:** 22:00etan. **Sarrera:** 10 euro.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA

► **Drogak: gizarte-gaia erakusketa** izango da udaletxeko ganbaran, urtarrilaren 27tik otsailaren 1era bitartean.
ARRASATE
► **Espacios en construcción erakusketa** du zabalik Juanjo Altuna Akizu margolariak Maala kaleko Arregi Enmarkazioak dendan, otsailaren 17ra arte.

BERGARA

► **Drogak: gizarte-gaia erakusketa** dago ikusgai kultura etxean, etzira arte (domeka), honako ordu eta egunetan: gaur, 18:00etatik 21:00etara eta bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara.
► **Beatriz Pérez margolariaren olio erakusketa** dago Nahikari tabernan, urtarril osoan.
► **Azur Gallastegiren argazkiak** daude ikusgai gaztetxean, otsailera arte.

OÑATI

► **Vasco Navarro trenaren gaineko erakusketa** dago kultura etxean, etzira arte. Gaurko (egubakoitza) orduetgia hau izango da: 10:30-13:30 eta 16:30-20:30. Bihar eta etzi (zapatua eta domeka), honako orduetgia ikusi ahal izango duzue: 11:00-14:00 eta 18:00-20:00. Eta bisitaldi gidatua erreserbatzeko, deitu 615 78 12 25 telefonora.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Gorputz lan bioenergetiko taldea** antolatu du Arrasateko Yoga Elkartek. Urtarrilaren 29tik martxoaren 26ra arte egingo dute lan, eguazteneko, 18:30ean. Izena emateko, jo elkarteko kideren batengana.

GIPUZKOA

► **Alpinismo ikastaroa** antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, otsailaren 1erako eta 2rako, Pirinioetan. Hobekuntza mailako ikastaroa izango da. Izena emateko epea urtarrilaren 28an bukatuko da. Izena emateko, deitu 943 46 14 40 telefono zenbakira, astelehenean, eguazteneko edo eguenean, 11:00etatik 14:00etara edo 17:00etatik 20:00etara.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Udal euskaltegia izena emateko epea** zabalik dago, otsailaren 14ra arte.
► **Benidormera bidaia** antolatu dute Basotxoko erretiratuek, apirilaren 27tik maiatzaren 11ra. Izena emateko, joan

INMO f3
SARE inmobiliaria

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

ETXEBIZITZAK
ARRASATE
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 110 m². Hiru logela, bainugela bi, egongela eta ganbara. Oso eguzkitsua eta duela urtebete berritua.

BERGARA
• 75 m², eguzkitsua eta 3.500m²-ko lursail komunitarioarekin: parkinga, txokoa...Prezioa: 126.212 euro/21.000.000 pta.
• 51 m², egongela, 3 logela, sukaldia, bainugela eta ganbara. 16.000.000 pta.

ANTZUOLA
• Duplexa. 87 m². Logela bi, jangela-egongela, bainugela bi eta sukaldia. la berria. Guztiz hornituta. Oso eguzkitsua.

ARETXABAETA
75 m², hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela bi. Ganbara eta garajearekin. Oso eguzkitsua.

LOKALAK
• **Arrasate:** Ferreris kalean 201 m²-ko lokala salgai. Errentan hartzeko aukera.
• **Arrasate:** Altamiran 98 m² salgai. Erakusleihoa dauka eta oso ondo dago. 10.000.000 pta.

KUTZI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

BERGARA / Etxebizitzak salgai
• Koldo Elizalde 85 m²
• Masterreka 65 m²
• Irizar 85 m²
• Martoko 62 m²
• ANTZUOLA: Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak.

BERGARA / Tabernak salgai eta errentan
• Jardunean dagoen taberna. Hornituta. Aukera paregabera.
• Jardunean dagoen sagardotegia.
• Jateke-taberna berritzeke.

BERGARA / Lokalak salgai eta errentan
BASERRIAK
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Osintxu, Gabiria, Berastegi (baserria eta borda), Mutiolo, Elosu, Zegama, Asteasu.

Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.

OÑATI
ZUBILLAGAN
800 M²-KO
INDUSTRIA
PABILJOIA
SALGAI
943 71 60 91

ARETXABAETA
TABERNA,
HARATEGIA ETA
PLATER
KONBINATUAK
DITUEN LOKALA
SALGAI.
943 77 03 08

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU
Elorrio. Apartamentua salgai. Logela, bainugela, sukaldia eta egongela. Prezio interesgarria. 946 82 11 00.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentu berria errentan ematen da. Sukaldia, bi logela, bainugela eta egongela. 610 20 01 14.
Arrasate. Erdialdean dagoen etxebizitza ematen da errentan. Berogailua dauka. 676 71 97 09.

2/ GARAJEAK

201. SALDU
Aretxabaeta. Garaje itxia saldu edo errentan ematen dut. 20m². Garajea Araba etorbidean dago, 27. zenbakian. 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Logela bat errentan hartuko nuke, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 630 82 02 25.
Oñati. Etxebizitza hartuko

Iragarki sailkatuak

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1. ETXEBIZITZAK 101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEAK OSATU 106. BESTELAKOAK	3. LOKALAK 301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	5. IRAKASKUNTZA 501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	7. ANIMALIAK 701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	9. HARREMANAK 901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK
2. GARAJEAK 201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	4. LANA 401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	6. MOTORRA 601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 603. KONPONDU 604. BESTELAKOAK	8. DENETARIK 801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	10. RELAX

BERGARA
ADATS
ILEPAINDEGIAN
NESKA BAT
BEHAR DA.
943 76 49 51

nuke errentan. 658 71 49 31.

106. BESTELAKOAK
Eskoriatza. Logela ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 943 71 48 36.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN
Bergara. Lokala ematen da errentan Espaloian. Bulegoa edo akademia jartzeko egokia. 943 76 16 89.

303. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Garajea ematen da

ARRASATE
JATETXE
BATEN
SUKALDARIA
BEHAR DA.
605 72 72 39

LAN ESKAINTZA

ENPRESA BATEN
GIZONEZKOAK EDO
EMAKUMEZKOAK BEHAR
DIRA TORNUAN ETA ZEN-
BAKIZKO KONTROLEAN
LAN EGITEKO. EZ DA
ESPERIENTZARIK BEHAR.
943 71 62 35 - 639 755 285

errentan lbargoia kalean. 945 44 52 81.

Aretxabaeta. Garajea ematen da errentan Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. 943 79 16 24.

Bergara. Garajea ematen da errentan Cruz Gallastegi kalean. 607 66 02 44.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN
Bergara. Lokala ematen da errentan Espaloian. Bulegoa edo akademia jartzeko egokia. 943 76 16 89.

ANTZUOLA
ZERBITZARIAK
BEHAR
DIRA.
659 45 20 06

4/ LANA

401. ESKAINTZAK
Arrasate. Emakumea behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Deitu 20:00etatik aurrera. (Amaia). 943 79 81 76.

Bergara. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 943 76 23 49 edo 943 76 97 05.

402. ESKAERAK
Arrasate. Bi mutil gazte lan bila gabiltza astegunetan zein asteburuetan. Zerbitzari edo beste edozein lan. 660 62 69 75.

Bergara. Emakume batek pertsona zaharrak zainduko lituzke. Esperientzia. 943 76 44 34 edo 607 26 14 21.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO
Aretxabaeta. DBHko 4. mailako euskarazko eskola partikularrak jasoko nituzke. 943 79 16 24.

502. EMAN

Arrasate. Ingeniarria gertu LOGSEko bigarren mailara arteko eskola partikularrak emateko. Gaiak: Matematika, Fisika, Elektrizitatea eta Tek-

ARRASATE
ARRASATEN BIZI
ETA LAN EGITEKO.
"E" GIDA-BAIMENA
DUEN GIDARIA BEHAR
DA ASTE
BUKAERETARAKO.
945 23 41 17

6/ MOTORRA

601. SALDU
Bergara. Terrano II (motza) salgai. 943 76 15 07.
Ford Capri autoa salgai. 1982koa. IAT pasatu du. Merke salduko nuke. 943 79 75 56.
Ford Courier diesela salgai. Ohea du. 646 12 52 17.
Honda XR 250 motoa salgai. 1999koa. 605 71 26 89.

Mobylette GAC D55 salgai. la berria. Prezio ona. 696 84 34 38.

Rover 416 autoa salgai. 1998koa. 7.500 euro. 639 30 85 30.

Subaru Legacy Turbo autoa salgai. Gehigarriak dauka. 620 24 69 69.

602. EROSI

Motoa. Mendiko motoa erosi nuke. Montesa, Bultaco edo Ossa. 656 75 76 98.

7/ ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK
Txakurrentzako koltxone-ta salgai. (70x55). Berria. 943 77 01 82.

8/ DENETARIK

801. SALDU
Autoarendako parrilla.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN,
ETA ABARREN
AURKAKO TRATAMENDU
ANTIXILOFAGOAK EGURREAN,
ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

nologia. Euskaraz edo gaztelaniaz. 657 77 68 89.

6/ MOTORRA

601. SALDU
Bergara. Terrano II (motza) salgai. 943 76 15 07.

Ford Capri autoa salgai. 1982koa. IAT pasatu du. Merke salduko nuke. 943 79 75 56.

Ford Courier diesela salgai. Ohea du. 646 12 52 17.

Honda XR 250 motoa salgai. 1999koa. 605 71 26 89.

Mobylette GAC D55 salgai. la berria. Prezio ona. 696 84 34 38.

Rover 416 autoa salgai. 1998koa. 7.500 euro. 639 30 85 30.

Subaru Legacy Turbo autoa salgai. Gehigarriak dauka. 620 24 69 69.

602. EROSI

Motoa. Mendiko motoa erosi nuke. Montesa, Bultaco edo Ossa. 656 75 76 98.

7/ ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK
Txakurrentzako koltxone-ta salgai. (70x55). Berria. 943 77 01 82.

8/ DENETARIK

801. SALDU
Autoarendako parrilla.

Autoan bizikleta bi eramateko parrilla salgai. Lotzeko era, autoan jarrirako bolarekin. Sistema elektrikoa. Matrikula jartzeko lekua dauka. 60 euro. Gauetan deitu. Peli. 943 77 01 74.

Berogailua. Fagor F-100 berogailua salgai. la berria. Prezio ona. 696 84 34 38.

Bulegoko mahaia. Haritz egurrez egindako bulegoko mahaia ederra salgai. Neurriak: 140 x 80 cm. Hiru kaxoiko bufferra. 150 euro. Gauetan deitu. Peli. 943 77 01 74.

Kalkulagailua. Matematikako grafikoa egiten dituen Casio markako kalkulagailua salgai. 656 75 76 98.

Magneto optikoa. 230 MW-ko Fujitsu magneto optiko irakurgailu-grabatzaila salgai. Baita 230 MW-ko lau kartutxo eta 128 MW-ko bat ere. 120 euro. Felis. 943 79 10 82.

Sukaldeko altzari guztiak saltzen ditut. Oso ondo daude. Etxetresna elektrikoak eta altzariak Fagor etxeok dira. Marmola, mahaia eta lau aulki ere saltzen ditut. Oso prezio interesgarria. 687 50 17 82 edo 650 90 09 53.

Umeendako kapotadun kotxetxoak, paseorako aukia, mini-sehaska, Maxi-Cosia eta parkea salgai. Ondo dago dena. Prezio ona. 943 79 41 31.

802. EROSI
Borda bat erosi nuke. 943 76 27 70 edo 686 65 13 66.

806. GALDU
Bergara. Hilaren 17an erloju-galdu nuen. Atzeko aldean data du eta itxigailuan inzialak. Eskertuko da. 946 58 24 70.

ARRASATE ORTOPEDIA
Maalako Errabala 8
Tel.: 943 77 20 78

Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea

Oinaren azterketak: tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
Umeak: hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.

Materia bigunen erabilera: oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
CAD/CAM sistema: Plantillan fabrikazioan (berehala ematen dira).
Neurrira eginiko oinetakoak.
AEBetatik inportatua.

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

BAZENEKIEN... TAKOIAK BERE GARRANTZIA DUELA.
■ Bi cm-ko takoi batekin, oinaren atzeko eta aurreko aldeek pisu berbera jasaten dute.
■ 4 cm-ko takoi batekin, oinaren banaketa oinak oinutsik daudeneko egoeraren kontrakoa da.
■ 6 cm-ko takoi batekin, oinaren aurreko aldeak %75eko pisua jasaten du eta oinaren atzeko aldeak %25ekoak bakarrik.

GANESHA

Rastak eta
extensioak

HORTZELAKO
PIERCING-A

TATTOO & BODY PIERCING

Mentxu, 943 71 18 24 • Olarte kalea 43 bis • ARRASATE

» KLINIKA LAGUNTZAILEA
» LABORATEGI KLINIKOA
» ESPERIENTZADUNA
» HIGIENEA 100%

AIPAGARRI

Ana Mari Rekalde

BERGARA

Mariaren Lagundiako Ana Mari Rekalderi, Madre Maria Jesus bezala ezagunagoa, omenaldia egingo diote etzi, domeka, Bergarako San Pedron. Horrela, urte askoan San Pedro eta Santa Marinako mezatan organoa jotzen arituzana eskertuko diote.



Arantza Ozaeta

ARRASATE

Radio Euskadiko *El altavoz* irratsaioan parte hartzen du Arantza Ozaeta arrasatearrak. Literatur gomendioak egiten ditu saio horretan, hilean behin. Eskoriatzako Humanitate fakultateko irakaslea da Arantza. Bestalde, Andoni Zubizarretak ere egiten ditu literatur gomendioak *El altavoz* saioan.



Joseba Gabilondo

ESKORIATZA

Gaztetxearen gaineko informazioa zabaltzeko, web orrialde bat estreinatu berri du Eskoriatzako Gazte Asanbladak. Joseba Gabilondo, hain zuzen ere, arduratu da webgune hori diseinatzeaz. www.eskoitzako-gaztetxia.tk helbidean topatu dezakegu webgune hori.



JAIOTAKOAK

Manex Olalde Aiastui. Oñatin, urtarrilaren 2an.

Nahia Carballares Quintas. Eskoriatzan, urtarrilaren 2an.

Miren Iturbe Mate. Arrasaten, urtarrilaren 16an.

Irati Larrinaga Arrotxa. Arrasaten, urtarrilaren 18an.

HILDAKOAK

Sebastian Aranburuzabala Eguren.

Arrasaten, urtarrilaren 18an. 75 urte.

Nikolas Ortueta Irasuegi. Aramaion, urtarrilaren 18an. 75 urte.

Ibone Gómez Gutiérrez. Bergaran, urtarrilaren 19an. 85 urte.

Blas Ozaeta Urizar. Arrasaten, urtarrilaren 21ean. 75 urte.

Eleuterio Olabarria Altuna. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 86 urte.

Antonio Zapata Lasheras. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 77 urte.

Jeronima Zelaia Leibar. Oñatin, urtarrilaren 21ean. 95 urte.

Ana Iturbe Juaristi. Oñatin, urtarrilaren 22an. 81 urte.



Irene Valle Gallastegi
Bergara • Urtarrilaren 22a • 3,400 Kg. Gurasoak: **Monse Gallastegi** (Bergara) eta **Juan Jesus Valle** (Bergara). Argazkian, umea lo dagoela.




Jonai Guardo Gil
Arrasate • Urtarrilaren 18a • 3,200 Kg. Gurasoak: **Ana Gil** (Bergara) eta **Jorge Guardo** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



Ekaitz Oskoz Barrena
Aretxabaleta • Urtarrilaren 22a • 3,240 Kg. Gurasoak: **Mikel Oskoz** (Aretxabaleta) eta **Abene Barrena** (Arrasate). Argazkian, Ekaitz amaren besoetan.



Amaia Palacios Guaman
Oñati • Urtarrilaren 20a • 3,582 Kg. Gurasoak: **Franklin Palacios** (Ekuador) eta **Gabriela Guaman** (Ekuador). Argazkian, Amaia gurasoekin.



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkartzetako batera.

Goienkaria

Astero 21.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 75 €.

ESKER ONA

Nicolas Ortueta Irasuegi

Aramaion hil zen 2003ko urtarrilaren 18an, 75 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Pilar Lete Jausoro

Arrasaten hil zen 2003ko urtarrilaren 15ean, 79 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Bittori Umerez Guridi

Bergaran hil zen 2003ko urtarrilaren 14an, 88 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.


PERKUSIO IKASTAROAK

Irakaslea: **Iñaki Bruña**
Ikastaroak: **otsailaren 3an, 10ean, 17an eta 24an eta martxoaren 3an eta 10ean**
Non: **ARRASATEKO Gazteluondo aretoan**
Izenematea: Gazte Bulegoan (943 77 00 65) edo Iñaki Bruñari (943 79 80 25) deituta.
Orduetgia: 18:00 – 19:30: **UMEENDAKO LANTEGIA**. Umeendako kantu ezagunak abestu eta danborrarekin landuko dituzte.
19:30 – 21:30: **HELDUENDAKO LANTEGIA**



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■



Ongizate Aurrezkia

EUSKADIKO KUTXA



Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkian bikoiztu egingo ditugu zure aurrezkien interesak, 2003ko lehen hiruhilekoan

Urtarrilaren 1etik hasi eta 2003ko lehen hiruhilekoa amaitu artean sartutako diruak eta irekitako Ongizate Aurrezkiko libreta berriek interes bikoitza emango dizute. Aprobetxatu Euskadiko Kutxak eskaintzen dizun aukera hau. Eperako libreten interesa izango duzu, baina baita dirua edozein momentutan erabiltzeko aukera ere. Udaberrri honetan zure aurrezkiak bitan loratuko dira. Galdetu Ongizate Aurrezkiaren abantailaz Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletan, 901 333 444 telefonoan edo www.cajalaboral.com orrialdean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Euskal mendialde	Deitzeko	Fruitu mota
	Bazterra	Txori uxatzaileak	
	* Izena		
	Oxigenoa		
Hezkuntza	Ehun mota		
Zegoen	Oso-oso txiki		
	Fruitu mota		
	Izan		
Ebaki sakon			Bokala
Metal mota			Bokala
		Masurioa	
		Erdietsia	Ekintza gaitzes-garriak
Ugaztun mota			Bokala
Egile atzizkia			Bokala
	Nola		
	(neo.) arte		
Infusio mota		Hizki grekoa	Iodoa
* Deitura		Gizon izena	Ni
Agurra	Trukaketa		
	500		
			United Kingdom

BILABILAZ



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

NEU BE PROGRAMAN NAGOK

Bein batian Mondragones atzelari zeukala, partidua aurrera zorian, baiña gure Marino estrenatzeko aurkitzen zan. Joku guztia mondragoetarrak zaroian. Marinori pelota bat be ez zetsan lagatzen. Azken batian, aspertuta, diadar egin zetsan Mondragonesi.

- Bautista, ni be programan nagok!

SAPABURUAK ARDAUAN

Biharbada, ezta egixa izango, baiña pasadizo au be Marinoren "palmariansian" ipintzen dabe. Sartu eizan tabernan gure Marino eta eskatu zeban txikito bat. Etara

dotse, eta gure pelotarixak, disimulu guztiakin, bota ditxu basora sapaburu batzuk eta asi da kejak tabernarixari:

- I, eztagok deretxorik au eitxeko. Sapaburuak ardauan?

Eta, tabernarixak, estututa:

- Ixildu ari, mesedez, emongo deuat beste baso bat duan. Ez eik esan iñun zer pasau jaken.

Eta bere andriari:

- Ori andra señoriori! Esaten jestat ba nik ez botatzeko erreka-ko urik, botatzeko txorroko ura, baiña alperrik.

Eta, Katu Baltzak, begixak jaso barik, biarrari jarraituaz:

- Trumoia joko zeban-ta...

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zein ez da Debagoieneko aldizkaria?

Debagoieneko herri guztietan argitaratzen dira herriko berri ematen duten prentsa edizioak, eta edizio horietako bakoitzak bere izenburua du. Baina herri prentsez aparte, proiektio zabalgoga duten aldizkariak ere argitaratzen dira Debagoiengan. Hona, hortaz, galdera: ondorengo lau hauetatik zein ez da Debagoiengan argitaratzen den aldizkari baten izenburua?

- 'Arantzazu'
- 'Berrigara'
- 'Putz'
- 'Gaztetxulo'

Erantzun zuzena: *Gaztetxulo* aldizkaria da gure ibarrean egiten ez dena, hori Donostiko Begera elkarteak argitaratzen du-eta; *Arantzazu* Arantzazuko frantsiskotarren argitalpena da; *Berrigara* Bergarako herri aldizkaria da; eta *Putz* Arrasaten argitaratzen den eta Euskal Herri osora hedatzen den aldizkaria da.

SOLUZIOAK



A	D	I	O	A	U	K
G	A	R	I	T	A	N
L	E	N	O	L	A	Z
K	O	A	L	A	A	
Z	I	N	K	M	A	
Z	A	R	I	A		
Z	E	N	A	A		
H	O	L	O	N	A	
E	R	T	Z	A		
A						

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Erantzukizun handiak izateak estutu egingo zaitu. Dena egin gura baduzu, laguntza eskatu beharko duzu; are gehiago, ez baduzu laguntzarik eskatzen, lanerako oso aukera interesgarriak galzenizate. Bestalde, neska/mutil bat ezagutzeko eta harekin amodio-harreman polita hasteko aukera.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Krisialdia eta kaosa amodioan, nola bikote-kidea duzuenondako hala ez duzuenondako. Hortaz, nahasmen egoera horretara zergatik ailegatu zareten pentsatzeko unea da.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Lanean aukera eskainiko dizute beste hiri batera lan egitera joateko. Bestalde, jan eta edan neurri barik egiten duzunez eta beti geldu egoten zarenez, zure odol-zirkulazioak txarrera egingo du, eta ondoezik senti zintezke.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Handinahiagatik lanean buru-belarri ibiltzeko beste gauza batzuk ahaztu eragin ditzake; familia, adibidez. Bestalde, ahalegin zaitzen agiri guztiak behar bezala edukitzen, Ogasun Sailak ikuskaritza egin diezazuke-eta.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Esku artean duzun proiektu hori dela eta, egin duzun ekarpenaren gainean hausnarketa egingo duzu; izan ere, zure ustez, ez dute zure lana behar bezala baloratu. Bestalde, emakumea bazara, min izango duzu obarioetan, eta medikuarengana joan beharko duzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Lanean egiten duzun guztiarekin identifikatzeko joera handia daukazunez, ez dituzu kontuan hartuko zure ingurukoen iritzia. Horrenbestez, gainerakoen iritzia entzuteak on egin diezazuke proiektuak aurrera ateratzeko.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Zure inguruan harmonia egotea gura duzu; hori dela eta, zure ingurukoek pentsatzen eta esaten dutenaren gainean oso jokaera sentikorra izango duzu, eta zure moduan pentsatzen ez dutenen iritzia gaizki hartuko dituzu. Bestalde, C bitamina eta ezti gehiago hartzen ahalegindu, hotzeririk eta ezta irazorik ez izateko.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Eztabaidak eta ika-mikak anai-arrebekin eta auzokoekin, haiei dagozkien ardurak zuri egotzi gura izango dizkizute-eta. Hala, daukazun espiritua praktikoa erabili borrokan jarraitzeko; izan ere, denborarekin gauzak argitu egingo dira.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Barne lasaitasuna izango duzu eta zeure buruarekin oso seguru sentituko zara. Horren haritik, etxea berriro apaintzeko buruan dituzun ideiak bete egingo dituzu. Bestetik, aisialdirako denbora luzeagoa izango duzu, eta familiakoekin pasatzeko aprobetxatuko duzu.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Aldaketak lanean, baina txarrerako; izan ere, ardura handiagoak izango dituzu, baina kobratuko duzun soldata ez zaio egiten duzun lanari egokitu. Hori dela eta, lanera beste enpresa batera joan gura izango duzu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Ohi baino kaskarrago egongo zara, gauzak ez direlako zuk gura bezala irten. Ez egotzi errua ingurukoari, eta ondo pentsatu zertan egin duzun huts. Bestalde, indar eta energia falta, eta osasun arazoak.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Ez zaude gustura zeure buruarekin, triste zaude, eta ez dakizu zergatik den. Hausnartzeko ordua da. Eta oso garrantzitsua da lagunena eta familiakoena aholkuei kasu egitea.





'Herrilan'

MARTITZENA/ 20:30 eta 22:30

Aretxabaletarrak 'Herrilan' saioan, Gorritiberearekin

Angel Bergaretxe alkatea jarriko du mahaiaren bueltan Alberto Gorritibereak. Gogoratu martitzenean izango dela saioa eta herritarrok ere parte hartzeko aukera izango duzuela.



'Iparrorratza'

EGUAZTENA / 20:30 eta 21:15

Palestinako egoera gertutik bizi izateko aukera

Amaia Arrizabalaga Komite Internazionalistetakoa da. Amaiak Palestinako egoera gertu-gertutik bizi izateko aukera izan zuen. *Iparrorratza*-n izango dugu Amaia, eguaztenean.




'Soinuz blai'

EGUENA ETA EGUBAKOITZA / 21:15

Modako musikaren txokoa Goiena Telebistan ere

Maite Albes eta Ugutz Usandizaga dira *Soinuz blai* saioako aurkezleak. Bideoklipen bitartez, musika taldeen abesti arrakastatsuenak aurkezten dizkigute *Soinuz Blai*-n.



'Berriak'

EGUNERO/ 14:30 / 20:00 / 21:00

Gertu-gertuko informazioa astelehenetik egubakoitzera

Ibarrean gertatzen denaren berri izateko aukera zabala eskaintzen dizu Goiena Telebistak. Arratsaldeko albistegiarekin hasten gara eguneko berri ematen; eta gauean, 20:00etatik aurrera, orduro.

TELEBERRIAK

Oihartzun handia izan du joan den astean GOIENKARIAN Billy Petersen aktoreari egindako elkarrizketak

Hedabide askok nabarmendu dute joan den astean GOIENKARIAN *C.S.I* saioko protagonistari, *Grissom*-i, egindako elkarrizketa eskusiboa eta Oñatin bizi izan zeneko erreportajea. ETB-leko *Bertatik bertara* saioan, luze eta zabal jardun zuten gai horren gainean. Eta *Sorginen Laratza* saioan ere egin zioten aipamena. GOIENKARIA izan zen albistea ateratzen lehena, eta horren ondoren etorri dira nazio mailako hainbat hedabide. Petersen-en aspaldiko lagun Michael Brunelleri esker izan zen posible elkarrizketa hura, eta GOIENKARIAK eskerak eman nahi dizkio bere laguntzarengatik.

ETBko 'Euskal Herria lau hazietara' saioari eman diote Argia saria

Gaur eguerdian banatu dituzte 2003ko Arga sariak. Hedabideen urteko lana aitortzea eta nabarmen-tzea da sari horien helburua. Telebista sailean ETBko *Euskal Herria lau hazietara* saioari eman diote Argia saria. Argiakoen esanetan, "Euskal Telebistaren eskaintzan mugarririk mar-katu duen eta urte hauetan nortasun berezia irabazi duen programa da *Euskal Herria lau hazietara*". Bestalde, publizitate sailean ETBko irudi kanpaina diseinatu zuen Donostiako Publis agenziari eman diote saria.


ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urtarrilaren 24tik 30era



EGUBAKOITZA 24	ZAPATUA 25	DOMEKA 26	ASTELEHENA 27	MARTITZENA 28	EGUAZTENA 29	EGUENA 30
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik tertulia 14:30 Iparrorratza 15:00 Lanabesak 16:00 Sarrera doan 16:30 Soinuz blai 17:00 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik tertulia 14:30 Iparrorratza 15:00 Lanabesak 16:00 Sarrera doan 16:30 Soinuz blai 17:00 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Herrilan 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Herrilan 14:30 Berriak 15:00 Herrilan 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Emisio amaiera			19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Herrilan 21:00 Aretxabaleta 21:00 Gaurkoak 21:15 Herrilan 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Herrilan 23:00 Gaurkoak 23:15 Herrilan 23:15 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iparrorratza 21:00 Gaurkoak 21:15 Xeleberri 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iparrorratza 23:00 Gaurkoak 23:15 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Emisio amaiera
21:15 'Soinuz blai'	15:00 'Lanabesak'	17:00 'Astebete'	20:30 'Harmailatik'	20:30 'Herrilan'	20:30 'Iparrorratza'	20:30 'Sarrera doan'


GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Ez bazara bi egunean figura egiten, kalera. Hogeita bi urteko jendea kalera dabiltza botatzen; beraz, ASPEren konfiantza falta nabarmena da".

Iker Muruamendiaraz / Pilotaria
"HARMAILATIK" (2003-01-20)



"Euskal Herriak elkartasun handia erakutsi izan dio Saharako herriari. Uste dugu erabateko arrakasta izango duela kanpainak".

Mohamed El Hamun Ahmed / Sahararra
"BERRIAK" (2003-01-21)


TELEBEGI / Maria Agirre

'Sautrela' barik

Jabier Muguruzak badu kantu bat *Linguae Vasconum Primitiae* izenekoa. Hitzak Sarrionaindiarenak dira eta pasarte batek halaxe dio: "Euskal poesiaz galdetu didanean esan diot: euskaldunek ez dute poesiarik leitzen, ETB ikusten omen dute eta bidaia turistikoak egiten omen dituzte tropikoetara".

Duda barik, gaur egungo gizartean telebistak literaturak baino askoz ere garrantzi handiagoa du. Baina noizean behin telebista ere errukitzen da literaturarekin eta saio batzuk eskaintzen. Horietako bat da *Sautrela*, ETBko lehen kateak noizean behin eskaintzen duen literaturaren gaineko saioa. Kalitate eta gustu handiarekin egindakoa, nire ustez. Literaturazalea ez izan arren, gustura ikusten den horietako bat. Erakargarria oso.

Orain, berriro agur esan digu *Sautrela*-k, joan eta etorri ibiltzen baita. Irakurzaile ez garenok *Sautrela* noiz ikusiko zain geratzen gara, zer esanik ez literaturazaleak.



2003an, *e-debagoiena*
zabalduz, bultzatuz...
zure haritik



Atzeskua

MAIDER OSA

Jon Zubiaga/The Kagas taldeko baxu jotzailea

Kooperatibista, musikaria ala aktorea? Lehenik eta behin, musikaria eta gero, aktorea, igual. Kooperatibista ez. Ez dut pentsatzen inoiz kooperatibista izango naizenik. Behintzat, ez nuke gura. Kooperatiban aste bi ibili nintzen lanean, aste biko kontratua zelako, eta nahikoa. Gurago dut, diru gutxiago izan arren, osasun ona edukitzea.

Musika gehiago gustatzen zaizu aktore lana baino?

Bai, erosoago sentitzen naiz taula gainean musikari moduan aktore lanetan baino. Aktore lana gaitzagoa da. Gitarra esku artean dudala beste sentsazio batzuk izaten ditut, eta, nolabait esateko, babestuago sentitzen naiz. Antzerkian konpromiso handiagoa dago. Gidoi batera mugatu behar duzu zeure burua, eta musikaren esparruan libreago sentitzen naiz.

Antzezten ere txikitatik hasi zinen, ikasgelako kideen aurrean.

Hori anaiaren influentzia izango da, baina egia da, txikitari imitazioak eta egiten nituen.

Eta gero Bilbora joan zinen, Antzerki Eskolara.

Ez zen hori nire intentzioa, baina beste lagun batzuekin elkartu eta animatu egin ninduten. Gustura ibili nintzen lau urtez Antzerki Eskolan ikasten, baina antzerkiaren gainean nuen kontzeptua aldatu egin nuen. Antzerkia oso gogorra da, aurretik izen bat eduki ezean. Diru gutxi ematen du, eta lan handia egin beharra dago.

Goenkale teleailean ere ikusi izan zaitugu.

Bai, baina oso agerpen puntualak izan dira.

Musikari ona zara. Talderik, behintzat, ez zaizu falta gitarra eta baxua jotzeko: Kañeria 13, The Kagas, Honky Tons, Des-Kontrol...

Taldeen kopuruagatik

neurtzen bada, bai, ona naiz. (Barreak). Neure burua ez dut musikari on bezala ikusten. Ahal dudana egiten dut, eta beti hobetzen ahalegintzen naiz. Hasi nintzen baina hobea naiz, baina oraindik asko dut ikasteko.

“Zeelanda Berriko taldeak sortu du ikusminik...”

Bai. Garesen eta Bartzelonan oso harrera ona izan dugu. Izena edukitzean, jendeak txipa aldatzen du. Kañeria 13, nire beste taldea, ibili da hasierako talde bezala The Kagas taldearen kontzertuetan, eta jendearen jarrera ezberdina da batekiko eta bestearekiko.

Gaur, gainera, kontzertua eskainiko duzue Bergaran.

Bai, egubakoitzean, Bergarako Jam aretoan. Azkeneko kontzertua izango da. Beste talderen bat etortzen bada Zeelanda Berritik... ikusiko dugu.

“Erosoago sentitzen naiz taula gainean musikari moduan aktore lanetan baino”

“Garesen eta Bartzelonan oso harrera ona izan du The Kagas taldeak”

► Arrasatearra / 24 urte / Musikaria eta antzezlea

PIPERRAUTSA

Retegi

Euskaldunoi, oro har, Retegi esan eta Julian datorrigu gogora, pilotari txapelduna. Baina Debagoiengan badugu beste Retegi bat, Jabier, Julian baino lehenago gogoratuko duguna segun eta zein testuingurutan. Bere emana garrantzizkoa izan da kanpoan ere, baina bereziki ibarrean izan da eragin handiko pertsona. Izan da eta da.

Jabier Retegi telebistan ezagutu nuen aurrez aurre. Bera Industria sailburu zen orduan, eta neuk ETBrako elkarrizketatu nuen, hamar bat minutuz. Gogoan dut utzi zidan inpresioa, nola indarra zerion eta zenbateraino gauzak agertzen zituen zuzen eta zehatz. ‘Tipo ona’ etiketa jarri eta gorde nuen bere oroimena.

Jaurlaritzan bukatu eta etxera itzuli zen, ibarrera. Eta bat-batean, kooperatibetatik hasi ziren egitasmo berriak iristen, mardulak eta eragin-garriak: MU, Garaia, Mende Berri, Arizmendi... Ez dira denak izango Jabierrek asmatutakoak, baina bere babespean hartu zuten indarra eta sartu dira gauzatzeko fasean.

Aldi horretan neu Goiena sortzeko lanean nenbilen eta oso hurbil sentitu nuen Jabier. Debagoiena gorpuzten ari ginen, bakoitza berean. Gero, e-debagoiena egitasmoan tokatu zitzaigun elkarlanean jardutea eta orduan ezagutu nituen bere estiloa, bere efikazia eta kemena. Jabier moduko dozena bat bagenu!

Orain, jubilatuta eta gero, Eusko Ikaskuntzako lehendakari hautatu dute. Zorioneko haiek!

MIKEL IRIZAR

sustatu.com

interneteko profesional euskaldunenendako albistegia

<http://www.sustatu.com>